



Filosofía

1 Lizentziaturak

Moisés Lozano Paz
José L. Martínez Costas
Modesto López Bouzas
Patricia Figueroa Rodríguez



**FILOSOFIA
BATXILERGOA 1**

1

Moisés Lozano Paz

J. Luis Martínez Costas

Modesto López Bouzas

Patricia Figueroa Rodríguez

Berrikusketa teknikoa:

Gloria Seoane

**Mc
Graw
Hill
Education**

MADRIL – BARTZELONA – BOGOTA – BUENOS AIRES – CARACAS – GUATEMALA

MEXIKO – NEW YORK – PANAMA – SAN JUAN – SANTIAGO – SAO PAULO

AUCKLAND – HAMBURG – LONDRES – MILAN – MONTREAL – NEW DELHI – PARIS

SAN FRANCISCO – SYDNEY – SINGAPUR – SAINT LOUIS – TOKIO – TORONTO

■ Aurkezpena

«Prestatua eta erabakia duzuna baino ez da etorriko, zure itxaropenaren isla triste hori, mahai baten gainean hazka ari den eta hotzak dardarka dagoen tximino hori. Hautsi iezaiozu burua tximino horri, egizu lasterka paretaren erditik eta bide egizu».

JULIO CORTÁZAR

«Eureka, eureka!». Arkimedes, pozaren pozez, biluzik eta presaka zihoan Sirakusako kaleetan barrena. Izan ere, bainuontzian sartzean, igotako uraren bolumena eta uretan murgildutako gorputzarena berberak zirela ikusi zuen eta, horrela, Hieron erregeak proposatutako problema nola ebatzi jakin zuen; hau da, nola jakin erregearen koroa urrez bakarrik eginda ote zegoen. Arkimedesek, hain zuzen ere, gorputz irregularren bolumena neurtzeko formula aurkitu zuen, gorputz horien dentsitatea kalkula baitzezakeen aurrez neurtutako masatik abiatuta.

Berdin dio kontakizun horretan azaldutakoa benetan gertatu ote zen, haren esanahia baita azpimarratu nahi duguna. *Eureka* horri erreparatu nahi diogu; *aurkitu dut!* horren sorburua enigma edo misterio bat argitzeko gakoak aurkitzean izandako kontzientzia-kolpea dela ikusi nahi dugu. Kezkatzen gaituen eta *izaten uzten ez digun* arazo baten irtenbidea aurkitzean barne-barnean sentitzen dugun *poza* erakusten du bozkario horrek. Kontzientziaren argiaren emozioa da. Berezkoa dugu gizakiok, berezkoena: gure jakiteko nahia baretzea, bai eta gure gogoia lasaitzea ere, ez baitago seguru ezezagun zaionaren aurrean. Horretarako, *zalantzak argitzeko*, hausnartu egiten dugu, hainbat irtenbide pentsatzen ditugu. Zalantzaren eta ziurgabetasunaren basamortuan zehar egindako ibilbidearen osteko sariak ematen duen plazerra; horixe esan nahi du Arkimedesen bozkarioak.

Ez dago poz intelektual hori alde batera uzten duen giza diziplina, materia edo zereginik. Hala ere, filosofian du bere funtsik errotuena, jakinduriarekiko maitasuna baita filosofia. Baina, *maitasun* hori dela eta, jakin nahi duguna ziurtasunez jakin nahi dugu, ez gutxi gorabehera. Ahalik eta seguruen egon nahi dugu dakigunaz; ahal dela, *guztiz* seguru egon nahi dugu. Ez digu balio edozein erantzunek, egon litekeen erantzun *bakarra* jakin nahi dugu; *egia* jakin nahi dugu. Alde horretatik, filosofia jarrera bat da: jarduera intelektual oro gidatzen duen grina, ezarritako jakintzaren inguruko ezjakintasunetik edo zalantzatik abiatuta, ziurgabetasunarekin behin betiko amaitu nahi duena, errealitatearen alderdi bati buruzko jakintza segurua eta pitzadurarik gabea eskuratzeko. Ikertzen ari garenari buruz egia absolutua jakiteko saiakera da.

Susmo batek, ordea, etengabe eztenkatzen du errealitatearen behin betiko jakintza eskuratzeko saiakera hori: agian, azken urrats horretara iritsi ez garenaren susmoak, hain zuzen ere. «Dakidan bakarra da ez dakidala ezer», esan zuen, paradoxikoki, Sokratesek. Horrela, jakintza filosofikoak betiereko eta etengabeko kezka gisa erakusten du bere burua; emandako erantzun batekin berarekin ere gogobetetzen ez den jakin-min aseegin gisa. Jakintzaren azken mugara iritsi nahian egiten dugun nabigazio errebeldearen gauzatzea da.

Hona hemen gure gonbidapena zalantzara, hausnarketara, galdera eta erantzunetara, zerbait aurkitu izanak ematen duen bat-bateko poz iragankorrera, etengabeko zalantzaren eta ikerketaren zeharkaldi latzera. Baina, orrialde hauetan zehar egingo duzuen bidaiaren intelektualaren edozein unetan, Cortázarren *Jarraibideen eskuliburua* baliatzea gomendatzen dizuegu: «Atea ireki eta eskailerara ateratzen naizenean, jakingo dut behean hasten dela kalea; ez jada onarturiko moldea, ez etxe jada ezagunak, ez aurreko hotela; kalea, oihantxo bizia non une bakoitza magnolia baten gisa oldar baitaiteke nire gainera, non aurpegiak jaioko baitira begiratzen diedanean, apur bat gehiago aurreratzen naizenean, ukondo eta betile eta azazkalekin kristalezko adreiluaren orearen kontra xehetasunez hausten naizenean, eta kale kantoira egunkaria eroatera joateko nire bizia jokatzen dudanean, pausoz pauso aurrera egiten dudana bitartean».

I. MULTZOA. FILOSOFIA: JAKINTZA TEORETIKOA

1. Jakintza filosofikoa: jatorria, zentzua, beharra eta historia	8
1. Filosofiaren jatorria	10
2. Jakintza filosofikoa, eta zer bereizgarri dituen	14
3. Jakintza filosofikoa historian zehar	18
4. Filosofiaren funtzioa eta egungo balioa	22
Filosofia sakonki	24
Gomendioak	26
Berrikusteko	28
2. Ezagutza, zientzia eta teknologia. Egiaren auzia	30
1. Giza ezagutza	32
2. Ezagutzaren teoria filosofikoak eta ezagutzaren mugak	36
3. Egiaren auzia	40
4. Ezagutza zientifikoa	44
Filosofia sakonki	48
Gomendioak	50
Berrikusteko	52
3. Metafisika eta errealitateari buruzko ikuskera filosofiko eta zientifikoak	54
1. Errealitatearen azalpen metafisikoa	56
2. Metafisika, Jainkoa aztertze bide	62
3. Metafisika, gauzen izatea aztertze bide	64
4. Errealitateari buruzko mundu-ikuskera filosofiko-zientifikoak	66
Filosofia sakonki	70
Gomendioak	72
Berrikusteko	74
II. MULTZOA. FILOSOFIA: JAKINTZA ANTROPOLOGIKOA	
4. Gizakiari buruzko ikuskera filosofikoak	78
1. Eboluzioaren teoria: zer den eta nola aplikatzen zaion gizakiari	80
2. Naturaren eta kulturaren arteko dialektika prozesu antropogenikoan	84
3. Gorputzari buruzko hausnarketa filosofiaren historian zehar	86
4. Gizakiari buruzko hausnarketa filosofikoa historian zehar	88
5. Giza existentziaren zentzua: gakoak	94
Filosofia sakonki	96
Gomendioak	98
Berrikusteko	100
5. Etika: oinarri antropologikoak, egungo erronkak eta teoria nagusiak	102
1. Etika ekintza moralaren hausnarketatzat hartuta ..	104
2. Teoria etikoak	108

3. Etika politikoa eta etika laborala: justizia bertutetzat hartuta	114
4. Etikaren egungo erronkak	116
Filosofia sakonki	118
Gomendioak	120
Berrikusteko	122

6. Politika: gizartea, boterea, legitimitatea, estatu demokratikoa eta herritartasun globala	124
1. Filosofia politikoa	126
2. Estatuaren oinarri filosofikoak	128
3. Teoria politiko nagusiak	134
4. Pentsaera utopikoa	138
Filosofia sakonki	140
Gomendioak	142
Berrikusteko	144

III. MULTZOA. FILOSOFIA: JAKINTZA APLIKATUA



7. Gizakiaren alderdi sinbolikoa eta estetikoa	148
1. Gizakiaren alderdi sinbolikoa	150
2. Sormena	152
3. Estetika: edertasunari eta arteari buruzko hausnarketa filosofikoa	156
4. Filosofia eta arteak	162
Filosofia sakonki	166
Gomendioak	168
Berrikusteko	170
8. Gizakiaren alderdi linguistikoa eta hizkuntzaren filosofia. proposizioen logika ...	172
1. Komunikazioa eta hizkuntza	174
2. Logika informala. Argudiatzea, erregelak eta baliabideak. Argudioak frogatzea	176
3. Proposizioen logika	180
4. Gizakiaren alderdi linguistikoa	185
Filosofia sakonki	188
Gomendioak	190
Berrikusteko	192
9. Filosofiak enpresaren munduari egindako ekarpena	194
1. Enpresa, proiektu arrazionala	196
2. Estetika, pentsamendu sortzailearen eta berritzailearen oinarria	200
3. Ekonomia mugiarazten duten balioak	202
4. Pertsona ekintzaileei esker, kulturak eta errealitateak izandako eraldaketa eta aurrerabidea	206
Filosofia sakonki	210
Gomendioak	212
Berrikusteko	214

Edukien garapena




Unitateei ekiteko, testu bat eta horretan oinarritutako **hasierako jarduera** bat proposatzen dira. Aipu batzuk ere badaude, edukia zentratzen laguntzeko eta hasieratik hausnartzen hasteko.



Unitateak zehaztasunez eta arintasunez daude garatuta. **Epigrafe bakoitzaren amaieran, testu filosofikoak** daude, testu iruzkinak egiten trebatzeko eta hobeto hausnartzen, ulertzen eta aztertzen ikasteko.



Amailerako atalak



Filosofia sakonki. Zeharkako edukiak aplikatzen dira ulertuz irakurtzeko, argudiatzeko, arrazoiatzeko eta aztertzeko.

Gomendioak. Liburuak, web-orriak, filmak eta abar proposatzen dira, hainbat iturritako informazioa aukeratzen eta sistematizatzen ikasteko.

Berrikusteko. Hainbat jarduera daude, edukiak finkatzeko, berrikusteko eta eskemak eta kontzeptu-mapak egiteko.

Blokeen azalak

I. MULTZOA
Filosofia: jakintza teoretikoa

Arazonaltasun teoriko eta praktikoa
Jesús Mosterín

Demokrariako herritarak
Victoria Camps

II. MULTZOA
Filosofia: jakintza antropologikoa

Filosofia eta eraberritasuna
José Luis Pardo

III. MULTZOA
Filosofia: jakintza aplikatua

Filosofia eta eraberritasuna
José Luis Pardo

Liburu honetako edukiak hiru bloketan daude banatuta. Hiru pentsalari espainiarrek berriaz idatzitako testuak proposatzen dira sarrera gisa, eta hainbat jarduera daude testu horiek lantzeko.

I. blokea. Filosofia, jakintza teoretikoa; **Jesús Mosterín-en** artikulua.

II. blokea. Filosofia, jakintza antropologikoa; **Victoria Camps-en** artikulua.

III. blokea. Filosofia, jakintza aplikatua; **José Luis Pardo-ren** artikulua.

Liburu digitala



Metodologia-eredu berritzailea eta helburu zabalekoa da. Haren oinarria da **ikaskuntza-gaiak** zehaztea, gelako behar pedagogikoei erantzun ahal izateko. Hainbat baliabide didaktiko daude, askotarikoak, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua errazteko.

On-line irakaskuntza-zentroa (CEO)



Ikasgai guztiek **baliabide digitalen banku** bat dute. McGraw-Hill Education On-line irakaskuntza-zentrotik eskuratu daiteke, eta material osagarriak ditu, bai irakaslearentzat, bai ikasleentzat ere.

1

JAKINTZA FILOSOFIKOA: JATORRIA, ZENTZUA, BEHARRA ETA HISTORIA

- 1. Filosofiaren jatorria
 - 1.1. Azalpen aurrearrazionala: mitoa eta magia
 - 1.2. Azalpen arrazionala: arrazoimena eta zentzumenak
 - 1.3. Jakintza filosofikoaren diziplina teoriko-praktikoak
- 2. Jakintza filosofikoa, eta zer bereizgarri dituen
 - 2.1. Jakintza motak
 - 2.2. Jakintza filosofikoaren ezaugarriak
 - 2.3. Filosofia ez da zientzia bat, jakintza bat baizik
- 3. Jakintza filosofikoa historian zehar
 - 3.1. Filosofia Antzinaroan
 - 3.2. Filosofia Erdi Aroan
 - 3.3. Filosofia Aro Modernoan
 - 3.4. Filosofia Aro Garaikidean
- 4. Filosofiaren funtzioa eta egungo balioa
 - 4.1. Filosofiaren funtzioa, Unescoren arabera
 - 4.2. Filosofiaren funtzio nagusiak

«Filosofiaren benetako funtzio soziala honetan datza: ezarrita dagoenari kritika egitean [...]. Kritika horren helburu nagusia da, hain zuzen, gizarteak gaur egun duen antolamenduaren arabera agintzen dituen ideien eta jokabideen mende ez uztea gizakiak bere burua. Gizakiek ikasi egin behar dute bereizten zer erlazio dagoen beren ekintza indibidualen eta ekintzekin lortzen denaren artean, norberaren existentziaren eta gizarte-bizitza orokorraren artean, beren eguneroko proiektuen eta berek onartutako ideia handien artean».

HORKHEIMER, M.: «Filosofiaren funtzio soziala» (1940), in *Teoria kritikoa*, Buenos Aires, Amorrortu, 1974 (moldatua)



Adi

Arrazionaltasuna eta pentsamendu kritikoa

1> Zergatik ikasi behar dugu kritikoki pentsatzen? Idatzi erantzuna koadernoan. Ondoren, eztabaidatu ikaskide guztien artean.

«Hezkuntzaren egungo teoriarriak bat datoz honetan: hezkuntzaren helburu nagusietako bat da ikasleek kritikoki pentsatzen ikastea eta, arrazionaltasuna landuz, herritar autonomo, arduratsu eta solidario bihurtzeko daitezke. Helburu hori bera proposatzen dute herrialde askotan hezkuntza-antolamendurako legeen oinarrian dauden adierazpen programatikoek ere. Horrenbestez, esan daiteke hezkuntza-komunitateek [...] arrazionaltasunaren laborategi izan beharko luketela.

Bestalde, edozein hezkuntza-eredu eta -praxitan ematen da, askotan inplizituki, arrazionaltasunaren ikusmolde jakin bat. Hezkuntzarekin gizaki zentzudunak lortu nahi badira, jakin beharra dago zer den arrazoiaren arabera zentzuz jokatzeko. Eta ikuspegi kritikoz pentsatzen duten gizakiak lortu nahi badira, lehenik eta behin aztertu beharko litzateke egun nagusi den *arrazionaltasun* kontzeptuak berak zer esan nahi duen; izan ere, gerta daiteke uste izatea kontzeptu horren bidez jakintzen, sinesmenen eta ekintzen sistema bat adierazten dela, talde gutxi batzuen interesak aintzat hartzen dituen gizarte-

2> Irakurri arretaz Tomás de Mirandaren artikulua. Pentsamendu kritikoa eta autonomia izatea zein garrantzitsua den adierazten da bertan.

antolamendua irauaraztea beste helbururik ez duena, eta gizaki guztien garapen osoa ahalbidetzeko gai ez dena.

[...] Eskolak, edo beste edozein hezkuntza-erakundek, pentsamendu kritikoren laborategi izan nahi baldin badu, elkarrizketa-komunitate bihurtu behar du; hau da, aukera eman behar du kide guztien iritzia eta sinesmenak zalantzan jartzeko, hala norberak nola besteek. Elkarrizketa-prozesu batean parte hartzen duten kideek aurreiritzi batzuk (aurrez egindako iritziak) izaten dituzten abiapuntu, bai eta zenbait premisa ere, ez beti esplizituak, eta horiek baldintzatu egiten dute hitzez adierazitakoaren interpretazioa. Partekatutako jakintza mota hori haurtzarotik barneratu du gizakiak, bere gizarte-taldeetako berezko ikuskerekin, sinesmenekin, balioekin, helburuekin eta asmoekin batera».

MIRANDA, T.: «Arrazionaltasuna eta pentsamendu kritikoa» (2004), in <http://www.edicionessimbioicas.info/Racionalidad-y-pensamiento-critico> (moldatua)

3> Zer da, egilearen ustez, herritar kritikoa, arduratsu, autonomo eta solidarioa izatea? Bat al dator zuk koadernoan idatzitakoarekin?

4> Irakurri berriz artikulua eta erantzun galdera hauei:

a) Zer adierazi nahi du egileak, «arrazionaltasunaren laborategi» esatean?

b) Zer ahalmen ikusten dio egileak gizakiaren arrazoimenari?

c) Zer esan nahi du egileak, «pentsamendu kritikoren laborategien» alde egiten duenean?

d) Irakurri *Datu gehiago* atala eta adierazi zer esan nahi duen pentsamendu kritikoa erabiltzeak.

+ Datu gehiago

Pentsamendu kritikoa erabiltzeko gai bazara, esan nahi du zeure kabuz pentsatzen duzula, ez dituzula besteen ideiak eta iritziak besterik gabe onartzen; hau da, onartzen dituzula, ez haien edo gehien-goak edo gizarteak esan dituelako, baizik eta horretan pentsatu duzulako, aldeko eta aurkako argudioen berri izan duzulako, eta zuk zeuk erabaki duzulako zer iruditzen zaizun egia eta zer gezurra, zer den onargarria eta zer onartezina, zer den desiragarria eta zer ez.

Adibidez, **albiste bat irakurtzean**, pentsalari kritikoa denak galdera mota hauen erantzuna bilatu behar du:

1. Ba al du informazio-iturriak gaiari buruzko trebakuntza, ulermen-maila edo gaitasun egokirik, ondorio bat emateko?
2. Ba al du informazio-iturriak zehatza eta egia izatearen ospea?
3. Ba al du informazio-iturriak arrazoirik, zehatza ez izateko edo informazio osoa ez emateko?
4. Ba al da arrazoirik, informazio-iturria zintzoa eta zuzena den zalantzan jartzeko?

Sarrera

Lehen unitate honetan, jakintza filosofikoaren jatorria azaltzen saiatuko gara, jakintza horren berezitasunak eta funtzionalitatea zehazten, eta mugimendu filosofiko nagusiak eta haien egileak aipatzen; eta hori guztia ingurunearekin lotuta egingo dugu. Horrela, jakintza tolerante eta kritikoa baterako bidea zabalduko dugu. Filosofiak berekin ekarri zuen errealitatea gertutik ezagutzeko beste jarrera bat; hain zuen, espezie biologiko guztien ar-

tean gizakiak baino ez du jarrera hori. Gizakiak bere ingurunea ulertzeko eta azaltzeko beharra du eta, horregatik, etengabe egiten dizkio galderak bere buruari. Bestalde, gizakia, beste animalia batzuk ez bezala, jaiotzean oso babesgabea eta helbregabea den arren, gai izan da bizirik irauteko, hainbat jakintza mota garatu izanari esker. Azken batean, gizakiak duen oinarri materialean, oinarri biologikoan, arrazoimenak garrantzi handia du. Horregatik ematen diogu zentzua munduari; horregatik da mundua gizatiaragoa eta animaliatasun hutsetik haragokoa.

1. Filosofiaren jatorria



1.1. irudia. Arrazoimena. Gizakiok bakarrik dugu ahalmen hau eta askatasunari zor diogu, askatasunari esker aukeratu baititzakegu jakinduriarako bidea eta jakinduria lortzeko baliabideak.

Filosofia Grezian sortu zen, K.a. vi. mendean, fenomeno naturalen azalpen mitikoen ordez azalpen arrazionalak emateko asmoz. Hori dela eta, esan ohi da mitotik logosera igaro izana dagoela filosofiaren jatorrian, pentsaera mitikoa pentsaera arrazionalak ordeztu baitzuen.

Merkataritza garatzearekin batera, ohartu ziren hainbat herriren kontakizun eta azalpen mitikoak ez zetozeela bat, eta horrek ekarri zuen lehen filosofoak mundu mitikoaz ez fidatzea; alegia, ez fidatzea mundu kaotiko eta arbitrario hartaz, natura jainko-jainkosen nahien esku zegoen hartaz. Horren ordez, munduaren ikuspegi arrazionala sortu zen: mundua kosmos ordenatua da, lege finkoen mende dago, eta lege horiek zein diren jakin daiteke.

1.1. Azalpen aurrearrazionala: mitoa eta magia

Giza ezagutza, ikuspegi historiko eta kulturaletik begiratuta, esan daiteke denborarekin agertuz joandako jakintzen multzoa dela. Jakintza horiek, gainera, aldi berean egon daitezke bata bestearen ondoan; hau da, bat sortzeak ez du esan nahi aurrekoak desagertzen direnik.

Ezagutzaren hasierako etapetan, *jakintzatzat* hartzen ziren mitoa, magia, teknika, erlijioa eta artea.

Mitoe jakintza mota bat da, beraz, eta ezaugarri hauek ditu:

- **Antropomorfikoa** da. Fenomeno naturalak, gaixotasunak, sumindura... jainkotzat hartu eta pertsonifikatu egiten dira; hau da, giza jokabide emozionala aitortzen zaie indar horiei.
- **Animista** da. Naturan espiritu ugari bizi da, eta adimena, sentimenduak eta asmoak dituzte.
- **Indeterminista** da. Naturan gertatzen dena arbitrarioki gertatzen da, kosmosa gobernatzen duten indar apetatsuek une bakoitzean nahi dutena egiten baitute eta ez baitago jakiterik zer nahi izango duten. Alegia, gauzak ez dira gertatzen kausen eta legeen sistema erregular eta inpersonal baten arabera.
- **Bideratzailea** da. Mitoak jarraibideak ematen dizkigu gizakioi, nola jokatu behar dugun jakiteko. Besteak beste, errituak, eskakizunak, debekuak eta tabuak ezartzen dizkigu.
- **Pentsaera akritikoa** da. Mitoa jainko-jainkosek agertu digutela uste da eta, beraz, gizakiok onartu beste aukerarik ez dugu.

Magia hasiera-hasieratik existitu izan da mitoarekin batera. Hauek dira jakintza horren ezaugarriak:

- **Menderakuntzako eta errituala** da. Gizartean pribilegiaduna den kasta batek –aztiak, xamanek eta apaizek osatua– fenomeno naturalen eta espiritualen gaineko jakintza duela uste da; hots, badituztela fenomeno horiek iragartzeko eta mendean hartzeko prozedurak. Hainbat erritu daude, espero diren gertaerak gainditzeko.
- **Pribatua eta dogmatikoa** da. Kasta horren jakintza sekretua da, ez da publikoa. Taldea osatzen dutenen artean bakarrik transmititzen da. Gainera, ezin da zalantzan jarri.

Hiztegia

Mitoe

Hitz hau Greziako kulturatik dator. Grezierazko *mythos* hitzak 'kontakizun' edo 'ipuin' esan nahi du.

Mitoeak kontakizun tradizionalak dira, naturaz gaindiko edo aparteko izakien gertaera harrigarri edo miresgarri buruzkoak. Jainko-jainkosak, erdijainko-erdijainkosak, heroiak, munstroak eta pertsonaia fantastikoak izaten dira protagonistak.

Logosa

Hitz hau ere Greziako kulturatik dator eta 'hitz' edo 'arrazoi' esan nahi du. Arrazoimenaren bidez eskuratzen den ezagutza dela esan daiteke.

Jakintza mitikoa	Jakintza arrazionala (logosa)
Kontakizun asmatua	Kontakizun landua: argudioduna
Irudimena	Arrazoimena, kritika
Jainko-jainkosak eta halabeharra	Natura eta beharra
Kosmos kaotiko eta apetatsua	Kosmos ordenatua, lege egonkorren bidez
Ezarritakoari itsu-itsuan jarraitzea	Etengabe bila ibiltzea
Errituak, otoitzak	Elkarrizketa, errealitatearen azterketa, eta sintesia arauetan

1.1. taula. Jakintza mitikoaren eta jakintza arrazionalaren (logos) arteko desberdintasunak.

1.2. Azalpen arrazionala: arrazoimena eta zentzumena

Arrazoimena gizakion berezko ahalmena da, gizakiona bakarrik, eta bi alderdi ditu:

- Arrazoimena erabiliz errealitatea ezagutzeko aukera ematen digu. Horri **arrazoimen teorikoa** esaten zaio.
- Arrazoibiderako eskemak erabiliz jokatzeko aukera ematen digu. Horri **arrazoimen praktikoa** deritzo.

Arrazoimena dela eta, gizakiak ez gaude animalien maila berean, eta hori **askatasunari** esker gertatzen da. Askatasunik gabe, ezingo ginateteke arrazionalak izan, arrazoimena erabiltzeko ezinbestekoa baita jakinaren gainean aukeratzea bai jakinduriarako bidea bai jakinduria lortzeko baliabideak.

Gure ekintzetan, zenbait arrazoimen-maila bereizten dira:

- **Asmoa**; hau da, geure buruari helburuak eta jomugak ezartzeko ahalmena, eta helburu zein jomuga horiek lortzeko prozedurak pentsatzekoa.
- **Egokitzeko ahalmena**; hots, inguruneak ezarritako baldintzetan bizitzeko ahalmena, eta, aldi berean, gure beharren eta gaitasunen arabera ingurune hori egokitzekoa edo eraldatzekoa.
- **Arrazoitzeko ahalmena**; alegia, errealitatea sinbolikoki adierazteko ahalmena. Horretarako, kontzeptuak erabiltzen ditugu. Kontzeptu horiek dira gure judizioen oinarri, eta judizio horietatik abiatuta egiten ditugu hipotesiak, gero teoria bihurtzen ditugunak.
- **Etorkizuna aurreikusteko ahalmena** edo aurreikuspen zientifikoa; hau da, baldintza batzuk betez gero zenbait gertaera nola eta noiz gertatuko diren aurreikustekoa.

Jakintza arrazional edo filosofikoak zentzumenezko ezagutza eta arrazoimena erabiltzen ditu:


- **Zentzumenezko ezagutza** zentzumenen bidez eskuratzen da eta berehalako informazioa ematen du errealitateari buruz. Zentzumeneke ematen diguten informazioa aldakorra eta era askotakoa da.
- **Arrazoimena**, berriz, zentzumenen bidez jasotako informazioa ulertzen eta interpretatzen saiatzen da, hartara iraunkorra dena eta esentzia bilatzeko.

Filosofia, Grezian **K.a. vi. mendean** sortua, giza ezagutzaren lehen etapa aurreratua dela esan daiteke. Garai hartan oraindik ez zen filosofiaren eta zientziaren artean bereizketarik egiten. Filosofiak berezko ezaugarria du, hasiera-hasieratik gainera, mito eta erlijioek –ordura arte jakintza modu nagusi izandakoek– emandako azalpenetatik ihes egin eta bestelako azalpenak bilatzea.

Alde batetik, mitoa edo irudimena zegoen, itsu-itsuan sinestean oinarritutako tradizioari lotua, eta bestetik, logosa edo arrazoia, gaitasun kritikoan, beharrean, elkarrizketan, analisisian eta sintesian oinarritua.

Mitoak printzipio irrazionaletatik (naturaz gaindiko indarrak, espirituak eta jainko-jainkosak) abiatuta azaltzen zuena **arrazoia**ren arabera azaltzen saiatu zen filosofia. Hona hemen filosofiaren ezaugarriak:

- **Arrazionala** da. Mitoak bezala, filosofiak ere fenomenoaren kausak bilatzen ditu, baina kausa horiek printzipio irrazionaletan oinarrituta egon behar dute, ez naturaz gaindikoetan. Filosofiarentzat, kosmosa osotasun ordenatua da, zenbait printzipio eta legeren menpekoa: printzipio eta lege erregular eta beharrezkoak, eta gizakiak bere arrazoimenarekin ezagut ditzakeenak.
- **Errealista** da. Printzipio eta lege naturalak beren baitan diren horretantxe pentsa eta adieraz daitezke, hizkuntzaren bidez, kondaira edo kontakizun sinbolikoetara jo beharrik izan gabe.
- **Argudioetan oinarritua** da. Azalpen irrazionala emateko ez da jo behar kanpoko justifikazioetara (tradizioa, autoritatea edo naturaz gaindikoa), baizik eta fenomenoaren eta haien kausen ikerketan ager daitezkeen arrazoi eta argudioetara.



1.2. irudia. Arrazoimena eta zentzumena. Batzuetan, ezagutza arrazionala ez dator bat zentzumenen bidezko ezagutzarekin. Adibidez, zentzumenen arabera eguzkia dabil gure inguruan biraka, baina arrazoimenari esker badakigu alderantziz gertatzen dela.

- **Indibiduala** da. Azalpen mitikoak anonimoak dira; filosofiak, berriz, egile baten azalpena ematen du, eta filosofo bakoitzak bere teoria du.
- **Kritikoa** da. Lortutako ondorio guztiak kritikatu daitezke, baloratu eta zalantzan jarri.
- **Praktikoa** da. Filosofiak, munduaren ikuskera teorikoa emateaz gain, nola bizi behar dugun ere hausnartu nahi du. Gizarteak eta gizakiek askatasuna, justizia eta zoriona lortzeko zer ezaugarri izan behar dituzten hausnartzen du.

Filosofiak, jakintza arrazionala den aldetik, bi **ezagutza-iturriak** erabiltzen ditu:

- **Zentzumenak;** hain zuzen ere, zentzumen-organoen bidez objektuak hautematen ditugu, eta jasotako estimuluen bidez, kontzeptu edo ideiak sortzen ditugu.
- **Arrazoimena;** gure ahalmen horren bidez, hautematen duguna antolatu eta egituratu egiten dugu, ulertzeko edo ideia gisa adierazi ahal izateko.

Julián Marías-ek dioen bezala, **filosofiak** 25 mende baino gehiago eman ditu Mendebaldeko gizartean, baina ez etenik gabe. Lehenbiziko presokratikoetatik, beti izan da filosofia, baina ez toki guztietan, eta hainbat etenaldi ere izan dira; gainera, beti izan da gutxiengo batena.

Biografia



Konfuzio (K.a. 531-479)

Kung-tse, Mendebaldean **Konfuzio** deitua, filosofoa, gizarte-teorialaria eta sistema etiko baten sortzailea izan zen, erlijiosoa baino gehiago. **Konfuzianismoa** mistikatik eta erlijio-sinesmenetatik urrun dago; filosofia praktikoa da: pentsaera-sistema bat, nola bizi erakusteko eta nork bere burua nola hobetu jakiteko. Azken helburua ez da salbamena, baizik eta jakinduria eta nork bere burua ezagutzea.

Filosofiaren jatorri historikoa

Mendebaldeko filosofia

Mendebaldeko filosofiaren jatorria Greziako zibilizazioari loturik dago; zehazki, lehen pentsalariari, **Tales Miletokoari** (K.a. VII.-VI. mendeak). Mitoek eta eta erlijioek ez bezala, filosofo horrek arrazoiaren oinarrituta eman zuen errealitateari buruzko azalpena, lehen aldiz.

Zergatik azaldu zen filosofia Grezian:

- **Pentsaera mitikotik pentsaera arrazionalerako bilakaera.** Filosofiak mitoaren zenbait kontzeptu bereganatu zituen, baina beste esanahi bat eman zien. Hala, ikusiko dugu mitoetako hainbat termino gero pentsalariak beren teorian erabiliko dituztela, hala nola justizia, legea, natura, jainkoa, arima eta gorputza.
- **Garaiko testuinguru soziokultural, politiko eta ekonomikotik eratorritako elementu garrantzitsuak.** Hainbat elementu erraztu zuten pentsamendu arrazionala agertzea; besteak beste, hauek: polisa (*hiria*) egoteak, itsas merkataritza loratzeak, jakintsuaren figurak, askatasun indibidualeko giroak eta eztabaida publikoak.

Ekialdeko filosofia

Txinan, Udaberrien eta Udazkenen garaian agertu zen (K.a. 722tik 481era). **Konfuzio** hartzen da lehen filosofotzat; hirurehun jarraitzaile baino gehiago izan zituen eta letratuen eskola sortu zuen.

Indian, *upanishad* izeneko testuak izan ziren lehen obra filosofikoak. Sanskritoz idatzi ziren, K.a. 500. urtean. Tratatu horien izena irakasteko modutik dator: ikaslea maisuaren aurrez aurre esertzen zen (*upa-ni-shad*), begirunez eta sekretu-giroan irakasteko.

Filosofiaren jatorri psikologikoa

Gizakiok berezko gaitasuna daukagu ezezagunaren aurrean harritzeko, nahasmena eragiten baitigu, eta hortxe dago, hain zuzen ere, filosofiaren **jatorri psikologikoa**.

Bai **Platonek** (K.a. 428-348) *Teeteto* izeneko lanean, bai **Aristotelesekin** (K.a. 384-322) *Metafisika* lanean, garrantzi handia ematen diote **harridurari**. *Harridura* hitza klasiko bihurtu da; denek erabiltzen dute filosofiaren jatorria azaltzeko.

Gogo bizia izateak gudan kontzientzia esnatu dela esan nahi du, nork bere burua ezagutzen saiatu nahi duela. Gizakia, kulturaren hastapenetan, ipuin, fabula eta mitoetako protagonista da eta, haietan, liluratzeko gaitasuna erakusten du.

1.2. taula. Filosofiaren jatorri historikoa eta psikologikoa.

1.3. Jakintza filosofikoaren diziplina teoriko-praktikoak

Filosofiaren historiak, giza bizitzaren historia erakustez gain, denboran zehar gizabanakoak nola pentsatu izan duen ere erakusten du. Hainbat egilek, hainbat garaitan, beren pentsamenduekin errealitate bat erakusten digute, igaro den arren gure oraina ulertzeko lagungarri zaiguna.

Filosofiarekin, giza espirituak unibertsoa arrazionalki ulertu nahi du. Helburu hori lortzeko baliabidea norik bere buruari galderak egitea eta hausnartzea da.

Aztergaia oso zabala denez, honako adar hauetan banatzen da, bereziki, filosofia:

- **Metafisika.** Den ororen errealitatea eta propietateak aztertzen ditu.
- **Logika.** Hitzek adierazitako arazoibideez arduratzen da. Haien egitura, forma eta zuzentasuna aztertzen ditu, baliozkoak diren ikusteko.
- **Epistemologia.** Ezagutzaren jatorriaz, baliozkotasunaz eta mugez hausnartzen du.
- **Antropologia.** Gizakia du aztergai, zenbait ikuspegitatik: biologia, gizartea, humanismoa eta kultura.
- **Etika.** Kode moralak ditu aztergai, eta arauen oinarria, baliozkotasuna eta unibertsaltasuna aztertzen ditu.
- **Estetika.** Edertasuna eta artea zer diren aztertzen du.
- **Politika.** Komunitatearekin lotutako giza alderdiez arduratzen da, hala nola gizakiaren jatorri sozialaz, gobernatzeko moduez, botereaz...

Filosofiaren adar nagusi horiez gain, badira beste filosofia batzuk ere: kulturaren filosofia, hizkuntzaren filosofia, zientziaren filosofia, filosofia soziala, zuzenbidearen filosofia, historia-ren filosofia, erlijioaren filosofia, etab.

Biografia



Platon

Grezia klasikoko pentsalari garrantzitsua izan zen. K.a 427. urte inguruan jaio zen, eta K.a. 347. urte inguruan hil, Atenasen. Haren familia noblea zenez, hezkuntza zabala jaso zuen ezagutzaren arlo guztietan. Bai bere familia-harremanengatik bai bere bokazioagatik, bizitza politikoan sartzeko asmoa izan zuen. Sirakusan, bere ideia politikoak gauzatzen saiatu zen, baina porrot egin zuen, zenbait aldiz. Sokratesen jarraitzaile izan zen, eta Akademian lan egin zuen, irakasle. Hauek ditu lan nagusiak: *Sokratesen apologia*, *Errepublik*a, *Fedon*, *Parmenides*, etab.

1. testua. Arrazoimena eta zentzumenak

«[...] argi dago ez garela adimena, baizik eta adimenaren arabera jokatzeko dugula, arrazoimenaren goreneko aldeak bultzatuta. Zentzumenen bidez, zalantzarik gabe, sentitzen dugu, bai, eta, egiaz, sentitzen duguna gara, baina gauza bera gertatzen al da arrazoitzen dugunean? Egiaz, geuk arrazoitzen dugu eta geuk ditugu buruan arrazoibidearen berezko nozioak, nozio horiek geu garenarekin nahasten baitira. [...] Onartzen dugu sentsazioak geureak direla beti, horretan bat gatoz, beti ari baikara sentitzen; baina zalantza sortzen zaigu hori bera adimenari buruz esan nahi dugunean, ez baitugu beti erabiltzen, eta adimena, gainera, bereiz dago. Bereiz dagoela adieraztean, esan nahi dugu berak ez duela gugana jotzen, baizik eta geuk jotzen dugula harengana, gorantz begiratzen dugunean».

PLATINO: *V. Eneada*, Madril, Gredos, 1988 (moldatua)

- 1> Zer ezaugarri ditu arrazoimenak, egilearen ustez?
- 2> Zer alde dago, egilearen arabera, arrazoitzen dugunaren eta sentitzen dugunaren artean?
- 3> Adierazi ezagutza arrazionalaren eta ezagutza mitikoaren arteko alderen bat.

2. Jakintza filosofikoa, eta zer bereizgarri dituen

Etimologiaren arabera, *filosofia* hitza grezierazko bi hitzez osatuta dago: *philo* (adiskidetasuna, maitasuna) eta *sophia* (jakinduria); beraz, 'jakinduria maitatzea' esan nahi du filosofiak. Bere buruari filosofo deitu zion lehenbizikoa **Pitagoras** izan omen zen; hark esan zuenez, bera ez zen *jakintsua*, baizik eta *filosofoa* edo *jakinduria maite zuena*.

Jakintza filosofikoa bigarren mailako jakintza bat da, ezinbestekoa duena bizitza politikoaren, sozioekonomikoaren eta kulturalaren garapen-maila jakin bat. Gainera, ezinbestekoak ditu lehen mailako beste jakintza batzuk ere, aurretikoak; besteak beste, jakintza teknikoak, politikoak, matematikoak eta fisikoak.

Filosofia da jakintza guztien artean zaharrena, eta hartatik eratorri ziren gero jakintza partikularrak. Hastapenetan, zenbait zientzia ez zeuden ondo bereizita, hala nola matematika eta fisika. Hala, Platonek beti esaten zuen matematika ez zekienak ez zuela sartu behar Akademian. Antzinako greziarrentzat, matematika ikasgai hutsa zen, ikas eta irakats daitekeena; diziplina ulerterraza zen, ez oso zaila.

2.1. Jakintza motak

Jakintza mota asko daude, baina hiru behintzat aipagarriak dira: jakintza arrunta (sen ona edo zentzu komuna), jakintza zientifikoa eta jakintza filosofikoa. Hiru jakintza horiek edonoren esku daude, giza adimenaren berezko gaitasunak baitira. Batak ez du bestea baztertzen, eta elkarren osagarri ere izan daitezke.

- **Jakintza arrunta edo sen ona.** Gauzak nola agertzen zaizkigun erakusten digu jakintza mota honek; hau da, suak erre egiten duela, urak busti egiten duela... Gizaki orok dugu jakintza arrunta, ez-gogoetatsua, arrazoimena naturalki erabiltzearen ondorioa; alegia, gizaki guztiok dugu sen ona edo zentzu komuna. Denontzat agerikoak edo ziurak diren gauza horietaz osatzen da; inork ere ez ditu falta eta inork ere ezin ditu alde batera utzi arrazoitzean. Jakintza mota honetan **aurreiritziak** ere badira; konformista da, eta **akritikoa** ere bai, baina herrien kulturen alderdi esanguratsuak ulertzeko aukera ematen du. Alderdi horiek zorrotasun handiagoko beste jakintza batzuen oinarri dira. Hori dela eta, jakintza mota hau garrantzitsua da, baina ez da behin betiko jakintzat edo jakintza osotzat hartu behar.
- **Jakintza zientifikoa.** Gure behaketa- eta esperimentazio-eremuan dauden gauzen berehalako **kausak** zein diren ikertzen eta erakusten du jakintza honek. Jakintza sakonagoa da; esate baterako, ur molekula bat bi atomo hidrogenoz eta atomo bat oxigenoz osatuta dagoela dela dio. Zientzia jakintza deskribatzailea da, gauzak nolakoak diren esaten baitigu; eta zer eduki eta fenomeno aztertzen dituen, zientzia mota bat edo beste izango da. Adibidez, gorputz-osasunaz arduratzen dena medikuntza da; burua eta gizakiaren jokabidean buruak dituen ondorioak aztertzen dituen, psikologia; izaki bizidunen eta ingurumenaren artean dagoen edo egon behar duen erlazioa aztergai duena, geologia; Lurraren egituraz diharduena, geologia, etab.

Azken batean, jakintza mota partziala da, errealitatearen arloak aztertzeaz arduratzen baita; aurrera egiten du eta informazioa ematen digu, esperimental da, subjektuarterkoa, kritikoa eta giza garapenerako ezinbesteko zenbait alderditan baliagarria.



1.3. irudia. *Hiru jakintzak.* Jakintza arruntak esaten digu euria egiten duenean busti egiten garela. Jakintza zientifikoak esaten digu ura, ur molekula bat, bi atomo hidrogenoz eta atomo bat oxigenoz osatuta dagoela. Jakintza filosofikoak esaten digu ura mundu fisikoko elementu bat dela, oinarritzko izate edo esentzia iraunkorra eta aldaezina duena (substantzia) eta ezaugarri aldakorrek dituen (akzidentea).

Jakintza zientifikoa	Jakintza filosofikoa
<ul style="list-style-type: none"> • Emaizten jakintza da. • Errealitatea arlotan banatzen du. • Metodo praktiko-esperimentalak darabil. • Informaziotik abiatzen da, ezagutza eskuratzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Auzien jakintza da. • Errealitatea osotasuntzat hartzen du. • Metodo teoriko-kritikoa darabil. • Ezagutza-maila batetik abiatzen da, jakinduria eskuratzeko.

1.3. taula. *Jakintza zientifikoaren eta filosofikoaren arteko aldeak.*

- **Jakintza filosofikoa.** Errealitatearen azken kausen ezagutza ematen digu. Adibidez, esaten digu ura eta sua mundu fisikoko elementuak direla, oinarritzko izate edo esentzia iraunkorra eta aldazina dutenak (substantzia) eta ezaugarri aldakorrek dituztenak (akzidentea). Filosofiaren helburua ez da errealitate jakin edo espezifikoa bat aztertzea, baizik eta, errealitate jakin edo espezifikoa abiatuta, errealitatearen lehen printzipioetara edo azken kausetara iristea.

Horrenbestez, ezin da esan jakintza jakin edo espezifikoa bat denik, ez eta jakintza espezifikoa guztien batasuna denik ere, errealitateari buruz sakon pentsatzea baitakarkigu filosofiak.

Platonek zioen betiereko edo aldazina den hori aztertu nahi dutenak direla filosofoak. Gauzak azaltzean, behatutako errealitatearen azken erroetara iritsi behar du filosofiak, zientzia espezifikoei ez bezala.

2.2. Jakintza filosofikoaren ezaugarriak

Aurreko atalean, jakintza arrazionala zer den azaltzean, adierazi da zer den jakintza filosofikoa. Baina zer ezaugarri ditu? Hona hemen, bada, zein diren jakintza filosofikoaren ezaugarriak:

- **Jakintza gogoetsua** da, errealitatea eta egia ezagutzea bilatzen baitu, arrazoitzeko dugun ahalmeneren bidez, gizakiari arduraz zaizkion auziei konponbidea aurkitzeko.
- **Jakintza irekia** da, zeren eta uste baitu, filosofiaren helburua gauzen azken egia aurkitzea den arren, bere proposamen asko prozesu irekiak direla, ez behin betiko egia.
- **Jakintza arrazionala** da, gizakiaren ezagumenera egokitzen diren erantzunak bilatzen baitu. Ezaugarri hau dela eta, beste planteamendu batzuetatik bereizten da, hala nola mitotik eta erlijiotik.
- **Jakintza global, bateratzailea eta bateratua** da, zientzia ez bezala, zientzia jakintza partzial, sektorial eta espezializatua baita. Izan ere, filosofiak izaki guztiak diren aldetik azaldu behar ditu, haien printzipio sakon eta funtsezkoenetan oinarrituta, eta zientziak, berriz, helburu jakin batzuetara iristeko bitarteko egokienak bilatzen ditu.
- **Errotiko jakintza** da, auzi zailen funtse aurkitu nahi baitu, hala nola askatasunaren eta giza existentziaren zentzuarena, eta ongiaren eta gaizkiaren auziarena. Auzi horiek *errotiko* auziak dakartzkigute eta, gainera, ezin zaie erantzun absoluturik eman.
- **Jakintza praktikoa** da, gizakiaren ekintzak bideratzen saiatzen delako, nolabait, zenbait printzipioen arabera. Maila indibidualen aplikatuta, filosofia etikoa dugu, eta maila kolektiboan aplikatuta, filosofia politikoa.
- **Jakintza sistematikoa** da, errealitatearen eta giza esperientziaren eremuak ordenatzen saiatzen delako.
- **Jakintza kritikoa** da, garai bateko pentsamoldea islatzen eta aztertzen duelako. Hala, baztertu egiten ditu, nolabait, dogmatismoak, bai eta gizarteak ezarritako eta automatikoki nahiz inkontzienteki onartutako egia eta sinesmenak ere.

Filosofiak, bere hastapenetatik, kontra egin die mitoei eta tradizioz denek onartutako egiei. Sen onaren edo zentzu komunaren ginetik ezartzen da, zentzu komunak mundua bere horretan uzten baitu, haren jatorria edo zilegitasuna zalantzan jarri gabe. Filosofiak, berriz, harago ikertzen du: ezarrita dagoenaz, emanda dagoenaz, ondoan dagoenaz eta iragankorra denaz harago.


Filosofiaren oinarrian dagoen gaitasun kritiko horren bidez, teoria zientifikoen mugak erakutsi dira; teknologiak naturan eta gizakiengan sortzen dituen desorekak eta deserroteak erakutsi dira; boterea gaitzetsi da, bai eta botereak gizartea mende hartzeko edo kontrolatzeko duen gehiegizko grina ere; eta filosofiaren beraren akatsak eta gabeziak ere aipatu dira, autokritikaren bidez.



1.4. irudia. Jakintza filosofikoaren ezaugarri nagusiak. Jakintza filosofikoa gogoetsua da, arrazionala, sistematikoa, analitikoa eta kritikoa, bai eta unibertetsala, arauemailea eta historikoa ere.

Jakintza filosofikoa oso lotuta dago bere bilakaera historikoarekin. Horrenbestez, filosofia, aldi berean:

- **Jakintza analitikoa** da, aztergai duen ororen funtsa aztertzen duelako, eta ez delako inoiz mugatzen funts hori besterik gabe onartzera.
- **Jakintza unibertsala** da, gizaki guztiak irits daitezkeelako arrazoimen hutsez filosofia ulertzera.
- **Jakintza arauemailea** da, proposamenak egiten saiatzen delako, betiere kritikaren bitartez eratuak, errealitatearen eraldaketa indibidual eta kolektiboa bideratzeko; hau da, proposamen horiek bide eta arautzat har ditzaten gizabanakoek (bai eta gizarteek ere), nor bere arrazoiak emanez denak elkarrekin bizitzeko (demokrazia).
- **Jakintza historikoa** da, bere buruaren etengabeko berrikuspen kritikoa eginez bilakatzen baita, autokritika historikoa eginez. Beti berrikus daiteke jakintza hau; ez da inoiz jakintza bukatua. Gainera, garai eta leku bakoitzeko faktore soziokulturalek ere eragiten diote filosofiari.



1.5. irudia. Jakintza filosofikoaren ezaugarriak.

Horrenbestez, laburbilduz, esan daiteke **jakintza filosofikoaren** bereizgarria –edo filosofiak lortu nahi duen jakintzaren bereizgarria– dela giza esperientzia **oro** aztertzea. Alegia, filosofia jakintza bateratzailea da, giza esperientzia orori zentzua aurkitzen saiatzen dena. Argitu beharra dago giza esperientziaren barruan sartzen dela bai gizakiak senti dezakeen guztia (koloreak, objektuak, sentsazio psikikoak...), bai pentsa dezakeen guztia, bai irudika dezakeen guztia, bai eta egin dezakeen guztia ere (zientzia, artea, etika, politika...). Horrez gainera, gizakiari agertzen zaion guztia modu jakin batera zergatik agertzen zaion azaltzen duten legeak ere (lege fisiko-kimikoak, biologikoak, sozialak...) sartzen dira giza esperientziaren barruan.

Baina filosofia, batez ere, **jakintza arrazionala** da. Arrazoimena erabiliz sortzen den jakintza da, eta arrazoimena berezkoa dugu gizakiok, gizaki guztiok, denok baitugu argudiatzeko edo arrazoitzeko ahalmena. Alde horretatik, esaten da filosofia **jakintza kritikoa** dela. Izan ere, guztion arrazoi bidez doa osatzen, eta pentsalari nabarmenen bidez doa agertzen historian zehar.

2.3. Filosofia ez da zientzia bat, jakintza bat baizik

Filosofia, zentzu hertsian, ez da zientzia bat, ez baitu gauza jakin bat aztertzen. Filosofia jakintza bat da, zientzia egiteko baliabide kontzeptualak dituena. Esan daiteke zientziak mundua duela aztergai, bai, baina behin erabaki dugunean badela mundu bat eta badirela, bertan, azter daitezkeen gauzak. Horrenbestez, zientziaren oinarritzko kontzeptuetan, haren sorreran eta haren definizioan, beti egongo da filosofia.

Gilles Deleuze pentsalari frantziarrak, 1991. urtean Félix Guattari-rekin batera idatzitako *Zer da filosofia?* lanean, honela esan zuen: «Filosofiak ez du ezer berezirik ematen aditzera. Topaketak egiten eta zenbait gauza ikusten baino ez du uzten. Spinozaren leiarrak bezalakoa da. Zerbait ikusten baduzu, aurrera, eta bestela, bota itzazu eta hartu beste batzuk. Filosofian, ez dago ulertu beharreko ezer. Filosofia ez da aurrez existitzen eta ez du inolako agindurik ematen. Besteekiko harreman fisikoa da, eta bizimodu baten asmaketa».

Aristoteles pentsalari greziarraren ustez, filosofia jakintza bat da. Honela esan zuen *Metafisika* lanean [I, 1, 981b28-982a5]: «Jakituria deitzen dugun hori, denen iritziz, lehen kausak eta printzipioak ezagutzean datza. Hala, lehen esan genuenez, aditua jakintsuagoa iruditzen zaigu edozein sentipen duena baino; eta artea duena jakintsuagoa adituak baino; eta obra baten burua are jakintsuagoa langile xume bat baino; eta ezagutza teorikoak are gehiago ezagutza praktikoak baino. Agerikoa da, beraz, zenbait printzipio eta kausei buruzko zientzia bat dela jakinduria. Eta, zientzia horren bila gabiltzanez, aztertu beharko genuke zer kausa eta printzipiori buruzkoa den jakinduriaren zientzia. Jakintsutzat zer hartzen dugun kontuan hartuta, baliteke bidea argiago egotea».

Filosofiak, zientziak ez bezala, ezin die eman giza pentsamendutik kanpoko errealitate batekin alderatuta egiazta daitekeen erantzunik bere auzi filosofikoei. Izan ere, auzi filosofikoei giza jarrerak adierazten dituzte: gizakiak bizikidetzari eta errealitateari buruz dituen jarrerak.

Auzi filosofikoak gizakion kezketatik sortzen dira eta gure **irudimenaren** nahiz gure **arrazoimeneren** ahaleginaren bitartez gauzatzen dira.

2. testua. Filosofiaren sorrera eta funtzioa.

«Agerian dago, filosofatu zuten lehenengoetatik ere, [filosofia] ez dela zientzia ekoizle bat, gizakiak, orain eta hasieran, lilurarengatik hasi baitziren filosofatzen: hasiera batean, gauza arruntek sortzen duten harriduraren aurrean liluraturik; ondoren, pixkanaka-pixkanaka aurrera egin ahala, gauza konplexuagoen aurrean zalantzan egonik; esaterako ilargiaren, eguzkiaren eta izarren eta unibertsoaren genesiaren fenomenoaren aurrean. Baina zalantzan eta liluraturik dagoenak onartzen du ez dakiela (hortik mitozalea ere, nolabait, filosofo izatea, mitoa liluraz josita baitago). Beraz, ez-jakitetik ihes egiteagatik filosofatu bazuten, agerian dago jakiteagatik eta ez inongo baliagarritasunarengatik ekin ziotela ezagutzeari. Eta horren lekuko da gertatutakoa: beharrezko gauza gehientsuak eta dibertsioaren eta bizitzaren atseginerako ezagutzak lortuak zirenean ekin baitzitzaion halako diziplina bat bilatzeari. Argi dago, bada, hau ez dugula beste inolako baliagarritasunarengatik bilatzen; gizaki askea, bere baitarako eta ez besteren baitarako dela diogun bezala, hau da zientzien artean askea den bakarra, zientzia hau bakarrik baita bere baitarako dena».

ARISTOTELES: *Metafisika*, Klasikoak, Bilbo, 1997, I, 2, 982b.

- 1> Zer kontzeptutan oinarritzen da Aristoteles, filosofiaren sorrera azaltzeko?
- 2> Aristotelesen arabera, gizakiak beti fenomeno berberengatik harritzen dira ala fenomeno horiek aldatu egiten dira? Arrazoitu erantzuna eta eman adibideak.
- 3> Aipatu zein diren zure ustez gizakia filosofatzera bultzatzen duten kausak.

Biografia



Gilles Deleuze
(1925-1995)

Gilles Deleuze (Paris) frantziar filosofoa xx. mendeko filosoforik garrantzitsuenetako bat izan zen, bai eta eragin handikoa ere. Hainbat lan filosofiko idatzi zituen, filosofiaren historiari, politikari, literaturari, zinemari eta pinturari buruzkoak.

Haren lanen artean, hauek nabarmentzen dira: *Kapitalismoa eta eskizofrenia* (bi liburuz osatua: *Anti-Edipoa*, 1972koa, eta *Mila goi-ordoki*, 1980koa, biak ere Félix Guattari-rekin batera idatziak); *Diferentzia eta erreplikapena* (1968); *Zentzuaren logika* (1969); zinemari buruzko *Irudi-mugimendua* (1983) eta *Irudi-dendora* (1985); eta *Zer da filosofia?* (1991), Guattari-rekin batera idatzia.

3. Jakintza filosofikoa historian zehar

Filosofiaren historiak, giza bizitzaren historia erakustez gain, denboran zehar gizabanakoak nola pentsatu izan duen ere erakusten du. Hainbat egilek, hainbat garaitan, beren pentsamenduekin errealitate bat erakusten digute, igaro den arren gure oraina ulertzeko lagungarri zaiguna.

3.1. Filosofia Antzinaroan

Antzinaroko filosofia K.a. vi. mendearen eta K.o. i. mendearen artekoa da, eta **Sokrates**, **Platon** eta **Aristoteles** ditu ordezkari nagusiak. Zenbait etapatan bereizten da, aztergai zer izan zuen. Hain zuzen ere, bostaldi bereizten dira:


- **Aldi kosmologikoa (naturaren filosofia).** Aldi honetan, naturaren jatorria azalduko zuen printzipio osagarria aurkitu nahi zuten (edo naturaren jatorria azalduko zuten printzipio osagarriak). Horretan aritu ziren **Tales**, **Anaximandro**, **Anaximenes**, **Heraklito**, **Parmenides**, **Pitagoras**, **Enpedokles**, **Anaxagoras**, **Leuzipo** eta **Demokrito**. Aldi honetako pentsalariak *presokratikoak* deritze.
- **Aldi antropologikoa (gizakiaren filosofia).** Aldi honetan, gizakia bere buruaz hausnartzen hasi zen, kanpoko errealitateari behatzeari utzita. **Sokrates** izan zen zentzu hertsian gizakiari buruzko hausnarketa filosofikoak egiten hasi zena. Baina Sokrates baino lehen sofistak (K.a. iv. mendea) aritu ziren horretan; besteak beste, **Protagoras** eta **Gorgias**. Pentsalari haiek izugarritzko garrantzia ematen zioten erretorikari, hitzaren bitartez konbentzitzeko eta hunkitzeko artea baitzen haientzat.
- **Sistema handien aldia (aldi epistemiko-ontologikoa).** Aldi honetakoak dira **Platon** eta **Aristoteles** (K.a. v.-iv. mendeak). Filosofo horiekin, Greziako filosofiak heldutasun bete-betea lortu zuen, eta handik aurrera pentsamendu filosofiko guztian ageriko da, nola edo hala, haien eragina. Bi pentsalari horiek diziplina honetako gai handi guztiak izan zituzten aztergai: izatea, ezagutza, kosmologia edo fisika, etika, politika eta logika (azken hori, Aristotelesekin). Gainera, bi sistema handi sortu zituzten: **idealista** (Platon), ideiak egiazkotzat hartzen zituena, eta **errealista** (Aristoteles), zentzumenen bidezko esperientzian oinarritzen zena. Bi filosofo horien pentsamendua halako moduz dago egituratuta, haien tesi filosofiko asko ondorengo egileengan ere ageri baitira.
- **Aldi helenistikoa (filosofia etikoa).** Aldi honetan, bi korrante filosofiko izan ziren: **epikureismoa** eta **estoizismoa** (K.a. iv.-iii. mendeak). Filosofoek auzi etikoak zituzten aztergai, berriz ere gizakia hartu baitzuten ardatz: gizakiaren barne-barneko aldea, haren salbamena eta zoriontasuna. Aldi honetan, gainera, filosofiaren zentzua aldatu egin zen, bizitzeko modu bat bihurtu baitzen, zoriontasuna ekar dezakeen jarduerara bat.

Biografia



Aristoteles
(K.a. 384.-322. urteak)

Platonen ikasle izan zen, Akademian. Gero, bere eskola sortu zuen Atenasen bertan: Lizeoa. Han, hainbat arlori buruz ikertu eta irakatsi zuen: logika, fisika, metafisika, psikologia, ezagutzaren teoria, biologia, etika eta politika. Unibertsoaren ikuspegi geozentrikoa zuen, eta ikuspegi horrek xv. mendera arte iraun zuen.



1.6. irudia. Antzinaroko pentsalarien kronologia. Kronologia horretan, Platonen aurreko pentsalariak ageri dira, nor bere eskolaren barruan, Sokrates izan ezik.

- **Erliziozko aldia (neoplatonismoa).** Antzinaroko filosofiaren azken aldia da. Aldi honetako filosofoek sentipen mistiko handia eta salbaziorako irrika erakutsi zuten; horixe zuten be-reizgarri. Pentsalarien artean, **Plotino** nabarmentzen da.

3.2. Filosofia Erdi Aroan

Historiako aro honetan, kristautasuna izan zen protagonista, eta, aldi batzuetan, islamismoa (nagusiki, **averroismoa**) eta **judaismoa**. **Kristautasuna**, funtsean, bizimodu-sistema bat izan zen: eredutzat Jesu Kristo eta helburutzat salbamena zuen bizimodu-sistema. Kristautasunak lehen mendeetan Greziako filosofiarekin izandako harremanen ondorioz, filosofiaren eta kristautasunaren arteko sintesi bat eratu zen: Erdi Aroko filosofia. Arrazoa eta fedea uztartzea izan zen filosofia horren gai nagusia; alegia, filosofia eta teologia uztartzea.

Erdi Aroko filosofian bi korronte handi bereizi ziren:

- **Patristikoa (I.-V. mendeak).** Kristautasunaren lehen mendeetan Elizako gurasoek egindako gogoetak zituzten oinarri; izan ere, garai hartan Elizako gurasoek Greziako filosofiaren kontzeptuak erabili behar izan zituzten errebelatutako egia ulertzeko, beren dogmak arrazoiaren arabera adierazteko eta beren doktrina defendatzeko. **Agustin Hiponakoa** filosofoa nabarmentzen da.
- **Eskolastikoa (XI.-XIV. mendeak).** Latinezko *scholasticus* hitzetik dator izen hori, eta monje-eskoletoako irakasleei esaten zitzaien horrela. Sistema filosofiko gisa, XX. mendera arte iraun zuen. Hiru aldi izan zituen:
 - **Lehen eskolastika (XI.-XII. mendeak).** Lehen aldi honetan, fedearen eta arrazoiaren arteko oinarriek bat egin zuten erabat. Platonen eta San Agustinen eragin nabarmena izan zuten. Filosofo aipagarrienak **Antselmo Canterburykoa** eta **Petri Abelardo** izan ziren.
 - **Goi-eskolastika (XIII.-XIV. mendeak).** Bigarren aldi honetan, sistema filosofiko-teologiko handiak eratu ziren. Aristotelesen eragin handia izan zuten. Fedearen eta arrazoiaren arteko erlazioa jada ez zen erabatekotzat hartzen. Filosofo garrantzitsuenak **Alberto Handia** eta **Tomas Akinokoa** izan ziren.
 - **Eskolastikaren krisialdia (XIV. mendea).** Azken aldi honetan, eskolastika desagertu egin zen, fedearen eta arrazoiaren arteko banaketa egiten hasi baitziren. Filosofoen artean, **Gilen Ockham** nabarmendu zen.

3.3. Filosofia Aro Modernoan

Errenazimentuak Aro Modernoaren hastapenak ekarri zituen berekin. Hain zuzen, mugimendu kultural hori XIV. eta XVI. mendeen artean gertatu zen. Erdi Aroko filosofiatik filosofia modernorako urratsa egin zen, **humanismorako bidea** hartu baitzen. Errenazimentuak Erdi Aroko **teozentrismoa** alde batera utzi, eta antropozentrismoa eta naturalismoa ekarri zituen, gizakiarengandik hurbil.

Errenazimentuaren ondoren, Aro Modernoa hasi zen. Matematika eta fisika izan ziren kanpoko eragile nagusiak, bai eta Errenazimentuko aurkikuntza geografiko handiak ere. Giza ezagutza izan zen protagonista nagusia. Lau sistema filosofiko handi izan ziren:

- **Arrazionalismoa.** Giza ezagutzari buruzko auziei erantzuten saiatu zen. Filosofo arrazionalistek iraultza zientifikoa edo zientzia berria bizi izan zuten. Uste zuten matematika oinarritzko printzipio agerikoetatik –axiometatik– abiatzen den jakintza bat dela eta printzipio horietatik ondorioztatzen direla sistemaren egia guztiak; gainera, egia horiek unibertsalak eta beharrezkoak dira. Arrazionalistentzat, agerikoak diren ideia edo printzipioetatik –jaiotzetikoak dira– eratorri behar du errealtatearen ezagutzak. Pentsalari nagusiak **René Descartes**, **Baruch Spinoza** eta **Gottfried W. Leibniz** izan ziren.
- **Enpirismoa.** Korronte honetako pentsalarien ustez, filosofiak alde batera utzi behar du ezagutza unibertsala eta beharrezkoa lortu nahia, bai eta espekulazioa ere, eta zentzumenen esperientzia hartu behar du ezagutzaren oinarritzat; hau da, gizabanakoak kanpo-eta barne-pertzepzioen bidez dituen sentipenen multzoan oinarritu behar du. **John Locke**, **Thomas Hobbes**, **Francis Bacon**, **George Berkeley** eta **David Hume** nabarmendu ziren.

+ **Datu gehiago**

Errenazimentuan zazpi korronte filosofiko nabarmen izan ziren:

- **Platonismoa: Pico della Mirandola** (1463-1494).
- **Aristotelismo: Pietro Pomponazzi** (1462-1525).
- **Humanismoa: Erasmo Rotterdangoa** (1469-1536).
- **Pentsamendu utopikoa: Tommaso Campanella** (1568-1639).
- **Errealismo politikoa: Nikolas Makiavelo** (1469-1527).
- **Naturaren ikuspegi berria: Roger Bacon** (1214-1294).
- **Iraultza zientifikoa: Nikolas Koperniko** (1473-1543).

Biografia



Hegel
(1770-1831)

Alemaniar idealismoaren ordezkari gorena izan zen. Eragin izugarria izan zuen Karl Marxen materialismo historikoan. Hegelen teoria da filosofiaren historian eraturako sistema handietan azkena. Metodo dialektikoa sistematizatu zuen eta, gero, marxismoak bere egin zuen metodo hori, beste esanahi bat emanda.

- **Kanten kritizismoa.** Egile honek arrazoimenaren dogmatismoa eta eszeptizismoa alde batera utzi zituen, arrazionalismoaren eta enpirismoaren edukiak bilduta. Horrela, bi korronteek bat egitea lortu zuen, eta aldi berean bi korronte horien sintesitik harago ere joan zen, kritizismoari esker. Kanten kezka nagusia natura eta giza ezagutzaren mugak aztertzea izan zen, bai eta jakitea ere ea metafisika jakintza zientifikoa den ala ez (*Arrazoimen hutsaren kritika*). Geroago, moralari ere aplikatu zion bere metodo kritikoa; horren arabera, ondorioztatu zuen moralia autonomoa eta formala dela, bai eta eginbeharrean, askatasunean eta agindu kategorikoan oinarritua ere (*Arrazoimen praktikoaren kritika*).
- **Alemaniar idealismoa.** Korronte honen pentsalari nagusia **Hegel** izan zen. Hegelek, historiaren filosofia egitean, balio handiagoa eman zion Estatuari gizarte zibilar baina. Horrek eragin handia izan zuen garai hartako mugimendu iraultzaileetan. Hegelen teoria dialektikoa ere oso garrantzitsua izan zen, gero materialismo historikoak berrikusi eta bere egin zuena. Alemaniar idealismoaren beste pentsalari batzuk **Fichte** eta **Schelling** izan ziren.

3.4. Filosofia Aro Garaikidean

Aro Garaikidean, XIX., XX. eta XXI. mendeetan, bai Europan bai Amerikan jarduera filosofiko konplexua izan zen. Aldi horretan, zenbait ekarpen egin ziren:

- **Auguste Comte-ren positibismoa.** Korronte hau Hegelen aurkako lehen jarrera izan zen. Comtek baztertu egin zuen bai metafisika bai jakintza absolutua lortu nahia; horren ordez jakintza positiboa, zientifikoa, ezarri nahi izan zuen, antolamendu politiko-sozial berri bat oinarritzeko.
- **Marxismoa.** Hegelen dialektikaren oinarri logikoak bildu zituen, baina, aldi berean, bere **filosofia materialistarekin** erabat egin zion aurka Hegelen idealismo absolutuari. Mugimendu honen bi ordezkari nagusiak **Karl Marx** eta **Friedrich Engels** izan ziren, eta haien lanak oso garrantzitsuak izan ziren, ez bakarrik alderdi kritiko-filosofikorako, baizik eta politikaren, ekonomiaren eta gizarte-antolamenduen alorrerako ere bai, hala nola sindikatuetarako. Helburua ez zen errealitatea interpretatze hutsa (teoria), baizik eta, batez ere, errealitatea eraldatzea (praxia).
- **Bitalismoa.** Pentsalari garrantzitsuena **Friedrich Nietzsche** izan zen. Hark berrikuntza handia ekarri zuen filosofiara: bizitzaren eta irrazionalaren defentsa, zientziaren eta fenomeno fisiko-kimikoen arrazionaltasunaren aurka. Espainian, geroago, **Ortega y Gasset** filosofoaren teoria arrazional-bitalista nabarmendu zen.
- **Existenzialismoa.** Gizabanakoaren existentziaren originaltasuna eta berezitasuna aldarrikatu zituen. Korronte filosofiko honek, beraz, existentziari eman zion lehentasuna, ez esentziari; eta bizitzari, ez arrazoizari; praxiari, ez teoriari; askatasunari, ez determinazioari. Filosofoen artean, **Søren Kierkegaard**, **Martin Heidegger**, **Jean-Paul Sartre** eta **Albert Camus** nagusitu ziren.
- **Filosofia analitikoa.** Korronte filosofiko honen arabera, pentsamenduaren akatsak hizkuntza-akatsak dira nagusiki, eta, beraz, gai logiko eta epistemologikoak aztertzeari ekin zion, bai eta hizkuntzaren analisiaren testuingurua aztertzeari ere. **Ludwig Wittgenstein**, **Bertrand Russell** eta **George Edward Moore** dira korronte honetako pentsalari garrantzitsuenak.
- **Neopositibismoa.** Korronte honek ez du metafisika onartzen, uste baitu zientzia enpiriko edo esperimentalen bidez bakarrik lor daitekeela benetako ezagutza. Pentsalari nagusia **Rudolf Carnap** izan zen.
- **Frankfurteko eskola.** Korronte honek industriaosteko gizartearen gogoeta kritikoa egin zuen, bai eta gizarte hori eratu zuen arrazoimen motaren (arrazoimen instrumentala) kritika ere. Eskola honetako kide izan ziren, besteak beste, **Max Horkheimer**, **Theodor W. Adorno**, **Herbert Marcuse** eta **Jürgen Habermas**.
- **Postmodernismoa.** Mugimendu honetako pentsalari batek, **Gianni Vattimo** filosofo italiarrak (1936), esan zuen postmodernismoa pentsamendu paradoxikoa dela, aldi berean eraiki eta desegin egiten baititu kontzeptuak, eta kode ugari nahiz eredu edo paradigma

mota asko ematen baititu. Gainera, gune kultural anitzetara zabaltzen du filosofia (zientziara, teknologietara, komunikabideetara eta artera). **Jean-François Lyotard** (1924-1998) izan zen postmodernismoaren beste pentsalari bat, eta, zenbait egileren arabera, baita **Gilles Deleuze** (1925-1995) eta **Jacques Derrida** (1930-2004) ere.

Korrontea	Bereizgarria	Pentsalariak
Hermeneutika	Testu filosofikoen interpretazioa.	Hans-Georg Gadamer (1900-2002)
Vienako zirkulua	Hizkuntza logiko-zientifikoaren bitartez formulatzea.	Karl R. Popper (1902-1994) Alfred J. Ayer (1910-1989)
Estrukturalismoa	Hizkuntzaren, kulturaren eta gizartearen analisia.	Lévi-Strauss (1908-2008) Michel Foucault (1926-1984)
Fenomenologia	Subjektuaren kontzientzian agertutako objektuen analisi intuitiboa.	Edmund Husserl (1859-1938)
Pertsonalismoa	Pertsonari buruzko gogoeta humanista.	Martin Buber (1878-1965) Xabier Zubiri (1898-1983) Emmanuel Lévinas (1905-1995)
Zientziaren filosofia	Zientziaren jardunari buruzko ikerketa.	Paul Feyerabend (1924-1994) Thomas S. Kuhn (1922-1996) Imre Lakatos (1922-1974)
Filosofia psikoanalitikoa	Inkontzientearen azterketa.	Sigmund Freud (1856-1939) Carl G. Jung (1875-1961) Jacques Lacan (1901-1981)
xx. mendeko emakume filosofoak	Pentsalari bitalista eta existentzialisten artean emakumeak agertzea.	Simone Weil (1909-1943) Edith Stein (1891-1942) Hannah Arendt (1906-1975) Simone de Beauvoir (1908-1986) María Zambrano (1904-1991)

1.4. taula. xx. mendetik gaur egunera arteko korronteak eta pentsalari nagusiak. xx. mendearen erdialdetik gaur egunera arte, joera ugari izan da eta, beraz, baita gai filosofiko ugari ere. Korronte horiek gero eta gai dibertsifikatuagoak dituzte aztergai (hizkuntza natural eta zientifikoa, pertsonarekiko eta haren inkontzientearekiko kezka...).

3. testua. Filosofiaren historia

«Gertatzen dena da filosofia baten balioa ez dela neurtzen egia objektibotik zenbat (*quantum*) daukan ikusita, baizik eta nork bere burua eta mundua ulertzeko saiakera bakoitzerako erreferentzia-puntu (polemikoa bakarrik bada ere) izateko daukan ahalmenaren arabera bakarrik. Kantek aitortu zuenean Humeri zor ziola *amets dogmatikotik* esnatzearen eta kritizismora bideratzearen meritua, modurik zuzen eta agerikoenean adierazi zuen historiako filosofo guztien artean mendekotasun askea dagoela. Filosofia baten balioa ez datza hainbat pertsona teoria jakin batzuei buruz ados jartzean, baizik eta besteengan ikerketa piztean eta ikertzera bultzatzean, ikerketa horren bidez nork bere bidea aurki dezan, teoriaren egileak teoria horretan aurkitu zuen bezala. Horren adibiderik handienak Platon eta Sokrates dira oraindik ere: Platon bizitza osoan saiatu zen Sokrate-

sen ereduari jarraitzen eta haren irakaspenak betetzen, betiere irakaspen horien bilgarri doktrinaletik aterata, beharrezkotzat jotzen zuenean; eta horrela sortu zen filosofiarik gorena eta ederrena, fideltasun historikoko ekintza errepikatu batetik».

ABBAGNANO, N.: *Filosofiaren historia*, Bartzelona, Montaner y Simón, 1973, 1. liburukia, hitzaurrea (moldatua)

- 1> Zer balio aitortzen dio egileak pentsalari bati edo sistema filosofiko bati?
- 2> Testu horretan Kant aipatzen da. Zer garai historikotan jardun zuen egile horrek?
- 3> Ikertu Sokratesen eta Platonen arteko erlazioaz.

4. Filosofiaren funtzioa eta egungo balioa

@ Interneten

Sartu http://www.uca.edu.sv/facultad/chn/c1170/El%20significado_de_la_filosofia_de_la_liberacion_hoy.HS.pdf web-orrian, eta azterketa interesgarri bat aurkituko duzu gaur egungo askapenaren filosofiari buruz, bereziki El Salvadorren eta Latinoamerikako kulturaren egiten denari buruz. Web-orri horretan esaten denez, «pobretutakoen eta baztertutakoen ikuspegitik etika unibertsalista baten oinarriak ezartzen saiatzeari ekin behar dio askapenaren filosofiak».

Filosofiari buruzko lehen azalpen hauek baliagarri izan behar zaizkigu, historian zehar bilakatu den eta gure pentsatzeko eta arrazoitzeko ekintzaren ondorio den jakintza bat ezagutzen hasteko.

Gaitasun horiek are garrantzitsuagoak dira, kontuan hartzen badugu, batetik, zenbaiten ustez izan daitekeen mundurik onenean bizi garela, historia bukatua dela jada eta ez dela erabateko aldaketarik gertatuko, eta, bestetik, beste batzuen iritziz errealitate oro aldakorra dela, eta, beraz, aldagarria eta bukatugabea dela. Arrazoi nork duen eta zer zentzutan duen erabakitzea da filosofiaren funtzioa.

Immanuel Kant (1724-1804) filosofo alemaniarrek bizi dugun orainaldi historikoa aztergaitzat hartzea proposatu zigun. Berak halaxe egin zuen, 1784an *Berlinische Monatschrift* aldizkarian argitaratutako «Zer da ilustrazioa?» artikuluan. Hor, pentsatzera animatu gintuen: «ausartu zaitez pentsatzera!», idatzi zuen.

Kantek proposatu eta modernitatearen berezkoa den tradizio horri jarraituz, esan beharra dago filosofia oso garrantzitsua dela honelako galderak egiteko:

- Zer ari da gertatzen orain?
- Zein dira gaur egun pentsamenduaren auziak edo aztergaia?
- Gure orainaldiko zeri buruz pentsatu beharko genuke?

4.1. Filosofiaren funtzioa, Unescoren arabera

2005. urtean, **Unesco** erakundeak (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea), bere 171. bilkuran (171 EX/12), *filosofiari buruzko sektorearteko estrategia* osatu zuen.

Amaitzean, eta han ateratako ondorioekin, filosofiaren funtzioei buruzko dokumentu bat idatzi zuen:



1.7. irudia. Filosofiaren funtzio orokorrak. Filosofia «askatasunerako eskola» da, eta «giza elkartasunerako eskola». Gizakion bizitzaren eta existentziaren auzi unibertsalei erantzuten die, eta beren kabuz pentsatzen duten espiritu aske eta gogoetatsuak sortzen ditu.

- Filosofia **askatasunerako eskola** da, baliabide intelektualak ematen baititu oinarriko kontzeptuak aztertzeke eta ulertzeke, hala nola justizia, duintasuna eta askatasuna. Gainera, independentziaz pentsatzeko gaitasunak sortzen ditu; kritikarako ahalmena areagotzen du, mundua ulertzeke eta zalantzan jartzeko; eta balio eta printzipioei buruz gogoeta egitera bultzatzen du.
- Herritarrek **gutxieneko nozio filosofiko eta moralak** izateko duten beharrari erantzuten dio filosofiak. Nozio horien helburua da zenbait balio bultzatzea, hala nola gizakiarekiko errespetua, bakearekiko maitasuna, nazionalismo zitalarekiko eta indarkeriaren inperioarekiko gorrotoa, elkartasuna, eta kulturaren ideialaren aldeko jarrera.
- Filosofia, kulturarteko bere eremuaren barruan, **giza elkartasunerako eskola** da, eta gizakiok elkar ulertzeke eta errespetatzeko oinarria; hain zuzen ere, elementu horiek funtsezkoak dira zibilizazioen arteko elkarrizketa sustatzeko. Kulturaren arteko elkarrizketa orok, eta komunitateen arteko adiskidetzeez, bi balio izan behar dituzte oinarrian: bakea eta bizikidetzeta.
- Filosofia gizakion **bizitzaren eta existentziaren auzi unibertsalei** erantzuteko modu bat da, eta pertsonoi independentziaz pentsatzen erakusteko bidea. Denontzako hezkuntza, kultura-aniztasuna, zientziaren etika, giza eskubideak, kulturaren arteko elkarrizketa, demokrazia eta zibilizazioen arteko elkarrizketa lortzeko, ezinbestekoa da oinarri filosofiko sakonak izatea eta zehaztasun analitiko eta kontzeptuala edukitzea.

- Jardun filosofikoak, eztabaida askea baztertu gabe, **nork bere kabuz pentsatzea** ahalbidetzen du, ahaleginak egin behar baitira erabilitako nozioen definizio doi-doiak zehazten, arrazoibideak baliozkoak diren egiaztatzen, besteen argudioak arreata handiz aztertzen, etab.
- Filosofiaren hezkuntza lagungarria da **bakea** lortzeko, eta prestakuntza ematen dio gizakia-ri, egungo galdera handien aurrean nork bere erantzukizunak hartzeko, batez ere etikaren alorrean. Hori hala da, filosofiak **espíritu aske eta gogoetatsuak** prestatzen dituelako, propaganda, fanatismo, bazterkeria eta intolerantzia mota guztiei aurre egiteko gai direnak.
- Gogoeta filosofikoa egitea, bai hezkuntzaren barruan bai bizitza kulturean, oso lagungarria da **herritarrek hezteko**, haien gaitasun kritikoarekin demokraziaren kalitatea hobetzen delako.

2008. urtean, azaroaren 20a Filosofiaren Munduko Eguna izatea erabaki zen. Unescoko zuzendari nagusiak, Kōichirō Matsuura-k, zabaldutako gutun batean honela zioen amaieran: «Espero dut nazioarteko komunitateari bere bizikidetzaren oinarri buruzko eta bere baloreei, printzipioei eta idealei buruzko eztabaida ludiko eta argigarri bat izateko aukera ekartzea Filosofiaren Munduko Egun honek».

4.2. Filosofiaren funtzio orokorrak

Tradizio historikoaren arabera, badirudi filosofiari dena interesatzen zaiola. Hala, bada, jakintza *handinahia* dela esan daiteke.

Baina, era berean, *errotiko* jakintza ere bada, gauzen erroa aurkitzen saiatzen baita. Jakintza filosofikoaren ezaugarri hori, errotikoa izate hori, nabarmendu egin zuen José Ortega y Gasset pentsalari espainiarrek (1883-1955).

Hona hemen zein diren filosofiaren funtzio orokor batzuk:

- **Logika sustatzea.** Adimen logikoaren eta pentsamendu abstraktuaren garapena sustatzen du. Ariketa mentalaren antzeko zerbait da.
- **Bideratzaile izatea.** Filosofiak, baden mundua pentsatzeaz gain, izan daitezkeen munduak ere pentsatzen ditu; hau da, mundua nolakoa izan litekeen.
- **Kritika eta autokritika egitea.** Dauden diskurtso motak (politikoak, artistikoak, zientifikoak, kulturalak, etab.) aztertzen ditu eta haien baieztapenetan zer aurreiritzi dauden adierazten du.

4. testua. Filosofiaren baliagarritasuna

«Kontziente izanez, gogoeta eginez eta arduraz jokatzuz bizitzea da filosofatzea. Horregatik, aurre egin behar diogu filosofiak ezertarako balio ez duelako ideia ergel horri. Alferrikakotzat jotze hori laudorio pozoitsua izan zen, gure jarduna goratu nahian esana, baliagarritasun baldar bat edukitzetik libratzeko. Baina, zertarako ikasi filosofia, orduan? Filosofiaren baliagarritasuna aldarrikatu behar dugu, gizabanakoarentzat eta gizartearentzat komenigarria dela aldarrikatu. Antidoto handia da fanatismoaren aurka, dogmatismoaren aurka, sineskortasunaren aurka, superstizioaren aurka eta sinplekeriaren aurka. Era guztietako antigorputz mentalak sortzen ditu: kritikarako gaitasuna, independentzia, gauzak bere osotasunean ikusteko gaitasuna, auziei aurre egiteko ausardia, auzi horien irtenbideetarako ausardia. Adimen ausart eta ebazlea da; hau da, auziak ebatzi eta erabakitazuz aurrera egiten duena».

MARINA, J. A.: http://prosofia.blogspot.com.es/2008/04/por-qu-es-til-la-filosofa_12.html (moldatua)

- 1> Zer da, egilearen arabera, filosofatzea?
- 2> Zer zentzutan da baliagarria filosofia? Arrazoitu erantzuna.
- 3> Zer funtzio ditu, egilearen ustez, filosofiak? Aipatu.



1.8. irudia. *Jardun filosofikoa.* Jardun filosofikoarekin, geure kabuz pentsatzen ikasten dugu, askeak eta gogoe-tatsuak izaten, eta kritikarako gaitasuna garatzen dugu.

Filosofia sakonki

Eztabaidatu

Pentsatzen ote dute animaliek?

1> Irakurri Interneteko webgune batean agertutako zalantza hau.

«Atzo, lagun batzuekin nengoela, animalien jokaerari buruz hasi ginen hizketan. Badakit animaliek senez jokatzeko dutela, eta gauzak ikasten dituztela, baina ezin dituzte gauzak gizakiek bezala aztertu, arrazoitzeko gaitasunik ez dutelako. Hala ere, nire galdera hau da: “Pentsatzen ote dute animaliek?”. Nik, adibidez, txakur asko izan ditut; guztien jokaerak desberdinak ziren, eta egiten zituzten zenbait gauzak harrituta uzten ninduten».

2> Zure ustez, pentsatzen al dute animaliek? Idatzi zer arrazoita-noinarritzen zaren baietz edo ezetz uste izateko.

3> Talde txikitik jarrita, aukeratu moderatzaile bat eta eztabaidatu: defendatu zure iritzia, aurretik idatzitako arrazoietan oinarrituta.

4> Moderatzaile bakoitzak bere taldean izandako eztabaida azalduko die gainerako ikasleei. Gero, ondorioztatu: Zer uste dute ikasgelako ikasle gehienek, animaliek pentsatzen dutela ala ez dutela pentsatzen?

5> Zer gertatuko litzateke baldin eta animaliek gizakiak bezala pentsatzera iritsiko balira?

Filosofo-eskola

Disertazioa

Testu pertsonal bat da, auzi filosofiko bat argi eta zehatz-mehatz azaltzen duena. Auzi horren irtenbidea idatziz aurkitu behar da. Ematen diren arrazoibideen helburu nagusia da irakurlea edo solaskidea konbentzitzea, gure tesiak onar ditzan.

Gakoak

- Teknika filosofiko honetan, arrazoibideetan oinarritutako elkarriketa bat gertatzen da.
- Disertazio-egileak frogatu behar du baduela kritika-espiritua eta baduela nahikoa gaitasun aztergai den gaiarekin lotutako auziak eta nozioak agertzeko.
- Disertazioaren teknika erabiliz gogoeta argia, zehatza eta koherentea egitea da kontua. Ez da, inolaz ere, ikasitako zerbait errepikatze hutsa.

Teknikak

- Disertaziorako gaia erabaki behar da. Horri *tesi* deritzo; hau da, disertaziorako gai nagusia agertzen duen baieztapena edo ezeztapena. Horren inguruan egituratuko da lan guztia.

Tesiaren alde edo kontra egin behar da, konbentzitzeko moduko arrazoibideak erabiliz eta gure kritika-espiritua erakutsiz.

- Kontu handiz saiatu behar dugu arrazoibidea ordenatua eta koherentea izan dadin. Horretarako, lokailuak zuzen erabili behar dira (*ondoren, horrela, orduan, beraz, etab.*), eta une oro adierazi behar da zer egitera goazen: «Orain, ... aurkeztuko dut...»; «Hemen, ... aztertuko dut»; «Hona hemen kontrako arrazoiak...». Ortografia ere zaindu egin behar da, eta, bereziki, puntuazio-markak. Horrela, errazago ulertuko da testua.
- Zati bakoitzaren luzerak zer-nolakoa izan behar duen ere hartu behar da kontuan. Sarrerak eta ondorioak luzera bertsua izan behar dute; bakoitzak testu osoaren bostena izan behar du, gutxi gorabehera. Garapenak hartu behar du leku handiena.
- Komeni da adibideak ematea: historiakoak, literaturakoak, filosofiakoak..., bai eta geure bizitzako esperientziakoak ere. Baina ez da, inolaz ere, azaleko kasuak aipatzen ibili behar.
- Filosofiako hiztegi teknikoak erabili behar da, baina hitz batek zer esan nahi duen ez badakigu, ez dugu erabili behar.
- Iritziak ematean tonu egokia erabili behar dugu, neurritzkoa, bai zerbaiten alde agertzean bai kritikatzeko.

Disertaziorako gaiak

- 1> Arrazoimena eta sentipenak.
- 2> Gizonezkoak eta emakumezkoak filosofian.
- 3> Pentsatzearen baliagarritasuna.
- 4> Egungo mitologia-kasuak eta arrazoimenak fantasiako kontakizun horiekiko duen funtzioa.

Ikertu

Ikertu, esate baterako, Internet bidez, unitate honetan aztergai izandako gai nagusiei buruz. Hona hemen zenbait proposamen.

1. Jakintza filosofikoaren ezaugarriak

Nahi izanez gero, zure ikastetxeko liburutegira joan zaitezke, filosofia-liburu batzuk erabiliz ikasliburu honetako ekarpenak osatzeko. Adibidez, Ortega y Gasseten *Qué es filosofía?* erabil dezakezu.

Bestalde, Interneten beste hainbat baliabide aurkituko dituzu. Badiara filosofiari buruzko web-orri interesgarriak, hala nola *Filosofía en español* izeneko proiektua (www.filosofia.org).

2. Filosofia, kulturarteko jakintza den aldetik

Beste edozein liburutegitan ere bilatu ditzakezu filosofia-liburuak, unitate honetako informazioa zabaltzeko. Esate baterako, Raúl Fonet-Betancour egilearen *Transformación intercultural de la filosofía: ejercicios teóricos y prácticos de filosofía intercultural desde Latinoamérica en el contexto de la globalización*, Bilbo, Desclee de Brouwer, 2001.

Internet bidez ere zabaldu dezakezu unitate honetako informazioa. Badira zenbait artikulua interesgarri, kulturarteko filosofiari buruzkoak; adibidez, «Filosofía intercultural, globalización e identidad: reflexiones sobre el desarrollo desde América Latina», helbide honetan: <http://www.uclouvain.be/cps/ucl/doc/dvlp/documents/Salas.pdf>

3. Jakintza filosofikoa eta jakintza zientifikoa

Behin eta berriz esan izan da gizakia berez dela filosofoa. Baina, orduan, zientzia agertu, eta galdetzen du: Gizakiaren baitan, non kokatzen da erantzunak aurkitzeko nahi hori edo behar hori? Gizakiaren gorputzeko zer lekutan dago? Bihotzean? Buruan? Zientziariak ikertzen aritu dira eta aurkitu dute giza garuna genetikoki dagoela diseinatuta sinesmen espiritualak izateko; alegia, gure garuneko espazio fisiko batean dagoela gure kontzientzia.

Gai horri buruz gehiago jakin nahi baduzu, begiratu web-orri honetan: www.revistaesfinge.com/ciencia/item/3-el-saber-cientifico-y-el-saber-filosofico

Jesús Mosterín-en obra honetan ere aurkituko duzu gai horri buruzko informazioa: *Ciencia, filosofía y racionalidad*, Madril, Gedisa, 2013. Liburu horretan, egileak, Jorge Wagensberg-ekin batera, filosofia eta zientziak beti izan duten erlazioari buruz hausnartzen du, eta deitoratu egiten du gaur egun lotura horiek galtzen joatea eta filosofiaren historiaren aztertzaileak baino ez egotea.

□ Zer dioten

1. testua. Filosofia zer den

«Zer da filosofia? Filosofo profesionalentzat ere oso zaila da galdera horri erantzutea, eta zailtasun hori, bere horretan, oso adierazgarria da, horri esker ohartzan baitira filosofoak beren aztergaia oso berezia dela. Lehenik eta behin, filosofiaren nahia ezagutza ekoiztea da; edo, hori asmo handiegia dela irudituz gero, gutxienez baditu zenbait proposizio, egileek guk egiazat hartzea nahi dituztenak. Hala eta guztiz ere, badirudi filosofia ez duela inolako aztergai espezifikorik. Nola defini liteke zer aztertzen duen filosofoak, kimikariak gorputzen konposizioa aztertzen duela esaten den modu berean, edo botanikariak landareak aztertzen dituela esaten den modu berean?»

Erantzunetako bat izan daiteke esatea filosofiaren aztergaiak adar asko dituela eta, horregatik, ez duela aztergai bakarra, baizik eta asko dituela. Horrela, bada, esan daiteke metafisikak errealitatearen egitura aztertzen duela; etikak, giza jokabidearen arauak; logikak, ondo arrazoi-tzeko irizpideak; eta ezagutzaren teoriak, berriz, zer ezagut dezakegun aztertzen duela. Erantzun hori ez da okerra, baina nahasgarria izan liteke. Hain zuzen ere, egia da, bai, etikak giza jokabideari buruz diharduela, baina ez da giza jokabidearen zientzia deskriptiboa, psikologia eta soziologia diren bezala. Etika preskriptiboa izan daiteke, baina preskripzioetatik harago dagoenaz arduratzen da, bereziki; ez du hainbeste jarduten jokabide-arauak ematen, baizik eta gehiago arau horiek zertan oinarritu daitezkeen hausnartzen.

Ezagutzaren teoriak aditzera ematen du zer ezagutzeko gai den gizakia, baina horrek ez du esan nahi entziklopedia baten gure ezagutzaren ikuspegi orokorra eman dezakeenik. Hori baino gehiago, ezagutza lortzeko irizpideak ezartzea da kontua, irizpide horien bidez mugatu ahal izateko zer ezagut daitekeen. Aurrerago ikusiko dugu ezagutzaren teoria eszeptizismo-ariketa bat dela, batez ere; argudioak eta ezeztatzak, ezagutu uste duguna benetan ez dugula ezagutzen frogatzen saiatzeko. Logika, berriz, kasu berezia da. Zientzia formala den aldetik, matematikaren parekoa da; hain zuzen ere, gaur egun ia ez dira bereizten. Baina, era berean, matematikarekin bat egiten duen heinean, aldendu egiten da filosofiatik».

AYER, A. J.: *Filosofiaren auzi nagusiak*, Madril, Alianza, 1973, 13.-14. or. (moldatua)

Testua arreta handiz irakurri ondoren, erantzun koadernoan galdera hauei:

- 1> Bilatu Interneten testuaren egileari buruzko datuak.
- 2> Ezagutzaren zer alderdi aztertzen ditu filosofia, beste zientzia batzuen aldean –kimika edo biologiarekin aldean, esaterako–?
- 3> Begiratu zer hitz ez dakizkizun, bilatu hiztegian eta idatzi esanahia koadernoan.
- 4> Idatzi egileak aipatutako filosofia-adarren izenak eta laburbildu adar bakoitzaren aztergaia zein den.
- 5> Filosofiaren zein adar dago matematikarekin lotuta? Nola deskribatzen du egileak?
- 6> Sailkatu testuan aipatzen diren filosofia-diziplinak, teorikoak ala praktikoak diren.

Gomendioak

□ Liburuak

GARCÍA MORENTE, M.: *Lecciones preliminares de filosofía*, Buenos Aires, Editorial Losada, 1971 (4. edizioa).

Egileak filosofiaren zereginari buruzko planteamendu orokorrak ematen ditu, oso modu erraz eta argian, hiru gai ardatz hartuta. Lehenik, metodo filosofikoekin zerikusia duten gaiak lantzen dira; gero, filosofiaren historia moduko bat egiten du, pentsamendu filosofikoaren bilakaeran izandako korrante nagusiak aipatuz; eta azkenik, filosofiaren alderdi doktrinala edo sistematikoa aztertzen du.

Jarduerak

- 1> Bilatu hiztegi batean egileari buruzko datuak eta idatzi koadernoan.
- 2> Egilearen estiloa oso argia eta atsegina da. Hartu 1. ikasgaia –filosofiaren alderdi nagusiez diharduena– eta egin laburpena.

Goñi, C.: *Buscando a Platón vía Internet*, Bartzelona, Eiunsa, 2000.

Nobela atsegin eta laburra da, Adrián izeneko gazte batek ezezagun batengandik jasotako e-mail batzuei buruzkoa. Pertsonaia-
ren bizitzan Platonen filosofia eta Greziako mitoak nahasiz joango dira eta, hala, bere burua aurkitzea lortuko du.

Jarduerak

- 1> Ikertu egileari buruzko datu batzuk eta idatzi koadernoan.
- 2> Deskribatu Platonen haitzuloaren mitoa, obra horretan irakurritakoa kontuan hartuta.

GAARDER, J.: *Vita brevis*, Madril, Ediciones Siruela, 1996.

Filosofiari buruzko fikziozko liburua da, Jostein Gaarderrek –*Sofiaren mundua* obraren egileak– idatzia. Flavia Emilia izeneko emakume batek –Agustin Hiponakoaren maitaleak– gerora santu bihurtutakoari bidalitako gutun sorta bat da. Gutun horietan, Flavia bere desadostasun eta atsekabeak adierazten dizkio filosofoari, bere aszetismoaren eta kristau-sinesmen berrien ondorioz abandonatu egin duela eta. Gainera, aurpegiatzen dio garrantzi handiagoa ematen diola heriotzaren osteko bizitzari egungo bizitza laburrari baino. Hain zuzen ere, bizitza labur hori aipatzen du izenburuak.

Jarduerak

- 1> Bilatu Interneten obra horri buruzko zenbait datu, eta idatzi koadernoan.
- 2> Irakurtzen baduzu, hausnartu Flavia Emilia San Agustin Hiponakoari esaten dionaz; alegia, hemengoa ahaztu eta haraindikoari begiratze horretaz.

□ Filmak

Arrosaren izena. Zuzendaria: Jean-Jacques Annaud, 1986, 130 minutu.

Sinopsia

Bi fraide frantziskotar beneditarren monasterio batera etorri dira, bertan gertatutako hilketari buruzko argitzera. Abadeak kausa argitzeko bai, baina liburutegian ez sartzeko eskatzen dio Guillermo Baskervillekoa anaiari (Sean Connery). Baina hilketari buruzko giltza liburutegian dago, hain zuzen. Film bikaina benetan, Umberto Eco idazlearen nobelan oinarritua.

Gaiak

1. Erdi Aroko filosofia eta Errenazimentukoa.
2. Elizaren funtzioa Erdi Aroan.
3. Jakintza botereari lotua.
4. Sineskeriak eta zientzia.
5. Metodo induktiboa, deduktiboa, hipotetiko-deduktiboa.
6. Teknologia berriak agertzea.
7. Inkisizioa eta haren jarrera dogmatista.

Jarduerak

- 1> Behin filma ikusi ondoren, aipatu zuzendariari buruzko datu batzuk, bai eta zer liburutan oinarritu den ere.
- 2> Hausnartu eta atera ondorioak hor ageri diren bi ideia kontrajarriei buruz: batetik, deabruaren botereak eta misterioa, eta, bestetik, gertaerei buruzko ikerketa arrazionala.
- 3> Nabarmendu, batetik, inkisizioaren metodoak, eta, bestetik, pobrezia eta aberastasunaren arteko kontrajartzea.

El mundo de Sofía. Zuzendaria: Erik Gustavson, 1999, 150 minutu.

Sinopsia

Sofia gazteak, hamabost urte bete baino egun batzuk lehenago, gutun anonimo misteriosu bat jaso du. Hor, galdera aztoragarri batzuk baino ez daude idatzita: «Nor zara?» eta «Zein da munduaren jatorria?». Hortik abiatuta, espedizio zirraragarri bat egingo du Mendebaldeko filosofiaren historian zehar, Alberto Know filosofo misteriosuak gidaturik. Elkarrekin, denboran eta espazioan zehar ibiliko dira, historiako 2.400 urte eginez: Antzinaroko Greziatik, Erdi Aroan zehar, Aro Modernoraino. Bidaia berezi horretan, garai bakoitzeko pentsalari ospetsuenak ezagutuko dituzte. Abentura epiko handi eta harrigarri bizi izango dute, beraz. Film hau Jostein Gaarder idazlearen izen bereko nobelan dago oinarrituta.

Gaiak

1. Teoria filosofikoak, modu ulerterrazean azalduta.
2. Filosofiaren historia.

Jarduerak

- 1> Filma ikusi ondoren, aipatu zuzendariari buruzko zenbait datu, eta esan filma zein liburutuan oinarrituta dagoen ere.
- 2> Azaldu zer deritzozun Sofiak Platoni buruz emandako azalpenari.
- 3> Sofiari hamar egileri buruzko azalpenak ematen zaizkio filmean. Aipatu zein diren.

 Web-orriak

Dianoia. Proyecto de filosofía en español: <http://www.webdianoia.com/index.html>

Edukia

Batxilergoko ikasleentzako filosofia lantzen du; hain zuzen ere, zenbait filosofo garrantzitsuren biografia, obrak, pentsamendua eta testuak ematen ditu. Jarduera interesgarriak ere baditu.

Filosofía hoy: http://www.filosofiahoy.es/Filosofia_Hoy_Apertura.htm

Edukia

Web-orri modernoa da, Facebook eta Twittererako estekak dituena. Zazpi atal ditu: dossier handiak, filosofo modernoak, pentsalari klasikoak, erreportajeak, egungo pentsalariei egindako elkarrizketak, artea eta liburuak.

El portal de la filosofía en internet: <http://www.filosofia.net/>

Edukia

Atari bat du (*Proyecto de filosofía en español*), bi bilatzaile (*Lechuza* eta *Averiguador*), bi hiztegi (*Diccionario de filosofía* eta *Enciclopedia filosófica*), eztabaidarako foro bat (*los foros de nóduo*), zenbait filosofia-elkartetarako estekak, lau aldizkari (*El Catoblepas*, *El Basilisco*, *Cuadernos de materiales* eta *Revista Cubana de Filosofía*), bi kongresu (*Congreso de Filósofos Jóvenes* eta *Congreso de Filosofía Joven*), eta Gustavo Bueno fundazioerako eta *El portal de la filosofía asturiana* atarirako esteka bana.

Gainera, Gustavo Bueno filosofoaren hiru obra jaitz daitezke: *¿Qué es la filosofía?*, *¿Qué es la ciencia?* eta *¿Qué es la bioética?*

Filosofía: <http://filosofia.idoneos.com/>

Edukia

Mendebaldeko historian izandako filosofo nabarmenenek eraikitako esparru teorikoen azalpen sistematikoa ematen du. Zehazki, filosofiako online liburutegi bat du, eta eztabaida filosofikorako gune ireki bat, gaika banatuta (*Ética*, *Comunicación*, *Estética*, *Filosofía de la Ciencia*, *Gnoseología*, *Metafísica*, *Sociedad* eta *Psicología*), bai eta aukeratutako artikulu nabarmenen multzo handi bat ere («¿Qué es un dogma?», «El deseo» eta «El concepto de libertad en el pensamiento griego», besteak beste).

Red Española de Filosofía (REF): <http://redfilosofia.es/>

Edukia

Erakunde honek Espainiako filosofia-komunitatea egituratu nahi du, eta filosofia-lanbidearen jardunarekin lotutako elkarre, fundazio, ikastetxe eta ikerketa-zentro guztiak koordinatu. Filosofiaren Espainiako sare hau honako hauek osatzen dute: *Conferencia Española de Decanatos de Filosofía*, *CSICen Instituto de Filosofía* delakoa, eta berrogeitik gora filosofia-elkarte, hainbat gai-esparrutakoak, hezkuntza-mailatakoak eta autonomia-erkidegotakoak.

Lechuza: <http://www.lechuza.org>

Edukia

Dohainezko baliabide bat da, oso interesgarria, dokumentazio filosofikoa biltzen baitu. Horren bidez, liburuak, aldizkarietako artikuluak eta webguneak aurki daitezke. Web-orrian bertan aipatzen da 2001eko irailean ekin zitzaizela datuak sartzeari, eta argitzen da liburu, akta, urtekari, aldizkari eta abarretako dokumentuak hartu eta haien deskribapena *Lechuza* bilatzailean sartzeko lana zuzenean egiten dela beti, jatorrizkoak aurrean edukita: inprimatutako dokumentuen deskribapen guztiak *Lechuza* bilatzailearen kolaboratzaileek eginak direla esaten da.

Gustavo Bueno fundazioaren liburutegiko funts bibliografikoetik abiatuta sortu zen datu-basea. Interes filosofikoko liburu eta aldizkariak onartzen dituzte, gero haien deskribapena egin eta datu-basean sartzeko.

 Aldizkariak

A Parte Rei. Filosofiako aldizkaria. Hemen: <http://aparterei.com/>

Madrilgo *Sociedad de Estudios Filosóficos* delakoaren filosofia-aldizkaria da. Bi hilabetetik behin argitaratzen da, eta ikerketa filosofikoak, atal monografikoak, liburuen kritikak, eztabaidarako foro bat eta erreseinak ditu. Artikuluak online edo PDF formatuan kontsultatu daitezke.

Berrikusteko

1> Azaldu zer esanahi duten zuretzat filosofiari buruzko esaldi hauek.

- «Gezurtiaren zigorra: inork ez sinestea, ezta egia esaten duenean ere», **Aristoteles**.
- «Giza espirituaren independentzia; horixe da benetako filosofia», **Chateaubriand**.
- «Filosofatu gabe bizitzea, berez, begiak itxita edukitzea eta irekitzen inoiz ez saiatzea da», **René Descartes**.
- «Filosofia ezin da ikasi; filosofatzen ikasi baino ezin da egin», **Immanuel Kant**.
- «Munduaz eta bizitzaz ikuspegi bateratu eta oso bat egiteko dugun beharrari erantzuten dio filosofia», **Miguel Unamuno**.
- «Galdera da gizakia esnatzen duena», **María Zambrano**.
- *Primum vivere, deinde philosophari*. Latinezko aipamen hori **Thomas Hobbes** filosofoarena izan daiteke, baina baliteke lehenagokoa ere izatea. Hau esan nahi du: «Lehenbizi, bizi; gero, filosofatu».
- «Jakintsuak aldatuko du, agian, iritzia. Ergelak inoiz ere ez», **Immanuel Kant**.
- «Ongia bakarra da: ezagutza. Gaizkia bakarra da: ezjakintasuna», **Sokrates**.

2> Aurreko aipamenetan, hainbat filosofia-gai aipatzen dira. Jarri talde txikitari eta adierazi auzi hauei buruz zer iritzia duzun:

- Zure ustez, filosofiaren bidez izan al gaitzke independenteagoak?
- Bizi al daiteke filosofatu gabe?
- Ikas al daiteke filosofia?
- Gure beharren artean al dago munduaren eta filosofiaren ikuspegi bat izatea?
- Galderak garrantzitsuak al dira garatzeko?
- Bizi al daiteke gizakia galderarik egin gabe?
- Ergelak zergatik ez dira iritzia aldatzeko gai?

3> Orain, zeure hitzekin definitu behar duzu zer den filosofia. Horretarako, jarraitu urrats hauei.

- Pentsatu zein diren diziplina honetako hitz giltzarriak eta idatzi koadernoan.
- Idatzi definizio bat, hitz giltzarri horietako batzuk erabiliz. Honela has zaitezke: «Filosofia da...», «Filosofiarekin,...», «Filosofoa...», etab.

• Irakurri berriz zure definizioa eta berridatzi argi ez dauden elementuak. Hortxe izango duzu filosofiari buruzko zure definizioa.

• Irakurri zure definizioa gainerako ikasleei eta entzun ikas-kideenak.

• Zein da definiziorik osoena? Bozkatu, onena zein den aukeratzeko.

4> Osatu esaldi hauek koadernoan:

a) Grezian, mendetik aurrera, berezko pentsamendu filosofikoa sortu zen.

b) Mitoak bezala, filosofia ere-en kausak bilatzen ditu, baina printzipio-etan oinarrituta egon behar dute, ez naturaz gaindikoetan.

c) Badirudi Mendebaldeko filosofiaren jatorria Greziako zibilizazioari lotuta dagoela; zehazki, lehen pentsalariari,-ri (K.a. VII-VI. mendeak).

d)-ko filosofia Mendebaldekoaren garai berean sortu zen, bai-n bai Indian.

e) Gizakiok berezko gaitasuna daukagu ezezagunaren aurrean , eta hortxe dago filosofiaren jatorri , nahasmena eragiten baitigu.

f)-k, giza bizitzaren historia erakustez gain, denboran zehar gizabanakoak nola pentsatu izan duen ere erakusten du.

g) Historiako aro honetan, kristautasuna izan zen protagonista, eta, aldi batzuetan, islamismoa (nagusiki,) eta

h) Aro Modernoaren hasieratik giza ezagutza izan zen protagonista nagusia. Lau sistema filosofiko handi izan ziren: , , Kanten kritizismoa eta alemaniar idealismoa.

i) Etimologiaren arabera, *filosofia* hitza grezierazko bi hitzez osatuta dago: (adiskidetasuna, maitasuna) eta (jakinduria); beraz, esan nahi du filosofia.


j) Jardun filosofikoak, eztabaida askea baztertu gabe, nor bere kabuz ahalbidetzen du, ahaleginak egin behar baitira erabilitako nozioen doi-doiak zehazten, arrazoibideak baliozkoak diren egiaztatzen, besteen argudioak arreta handiz aztertzen, etab.

Giltzarriak

- Mendebaldeko filosofia **Grezian** sortu zen, **K.a vi. mendean, Tales Miletokoarekin**. Aurretik, kontakizun mitikoak zeuden; haiek prestatu zuten logosaren edo arrazoiairen etorrera.
- Zenbait jakintza mota daude: **arrunta (zentzu komuna nahiz sen ona)**, konformista eta akritikoa dena; **zientifikoa**, experimentalta eta kritikoa dena, eta baliagarritasuna bilatzen duena; eta **filosofikoa**, gogoetatsua, kritikoa, praktikoa eta sistematikoa dena.
- Filosofia **funtzionala** da, askatasunaren esparruan jarduten baitu eta espiritua zabaltzen baitu, bai eta nork bere buruaz hausnartzera bultzatzen ere.
- Gizakiok **pentsetzeko** eta **arrazoitzeko gaitasuna** dugunez, eta pentsamendua modu kritikoan, autonomoan eta askatasunez erabili ahal izatekoa, filosofia baliagarria eta beharrezkoa da.
- Filosofiak **kulturartekoa** izan behar du, pentsamolde bakarrean ereduaren aurka egin behar du, eta **eredu pluralista** eta **tolerante** baten alde, aniztasuneko mundu honetan.
- Filosofiak hainbat adar ditu: **arrazoimen teorikoaren** baitakoak (adibidez, metafisika eta epistemologia), eta **arrazoimen praktikoen** alorrekoak (adibidez, etika, estetika eta politika).
- Historiako lau arotan zehar (Antzinaroa, Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Aro Garaikidea), hainbat **pentsetalarik** (gizonezko nahiz emakumezko) egin dute gogoeta auzi epistemologikoez, metafisikoez, antropologikoez, etikoez eta politikoez, nork bere garaiko testuinguruan, eta nor bere pentsamenduari ikuspegi original, sistematiko eta kritikoa ematen saiatuz.

Kontzeptu-mapa

Kopiatu koadernoan kontzeptu-mapa hau eta azaldu zer desberdintasun dauden jakintza moten artean.



Autoebaluazioa

1> Aukeratu erantzun egokia.


- Mitoen baitan, hauek daude: a) Arrazoimena, b) Irudimena eta arrazoimena c) Irudimena eta sinesmenak.
- Filosofiaren baitan, hauek daude: a) Arrazoimena, b) Sinesmenak, c) Irudimena.
- Lehenbiziko filosofoak hauek izan ziren: a) Latindarrak, b) Greziarrak, c) Alexandriakoak.
- Erdi Aroan, pentsamolde hau izan zen: a) Kristaia, b) Kristaia eta arabiarra, c) Kristaia, arabiarra eta judua.
- Aro Modernoan, honetaz egiten zen gogoeta: a) Natura, b) Ezagutza, c) Zoriontasuna.
- Aro Garaikidean honetaz egiten zen gogoeta, bereziki: a) Jainkoa, b) Gauzak zer diren, c) Bizitza, existentzia, gizarte, pertsona.

2> Osatu definizioak koadernoan, hitz hauek erabiliz:

akritikoa – autonomoan – kritiko – giza – jakintza – zentzumeneren esperientzia – sistematikoa – arrazoimena – gogoetatsuak – askatasunerako – gizaki – oro – baliagarria

- Jakintza filosofikoa**, batez ere eta nagusiki, jakintza eta autokritikoa da.
- Jakintza arrunta** edo **zentzu komuna** konformista eta da, eta aurreiritziak ere baditu.
- Jakintza zientifikoa** partziala da, aurrera egiten du eta informazioa ematen digu, experimentalta da, subjektuarterkoa, kritikoa eta
- Unescoren arabera, filosofia «..... eskola» da, baliabide intelektualak ematen baititu oinarritzko kontzeptuak aztertzeke eta ulertzeke, hala nola justizia, duintasuna eta askatasuna.
- Unescoren arabera, filosofiaren hezkuntzaren bidez espiritu aske eta prestatu behar ditu, propaganda, fanatismo, bazterkeria eta intolerantzia mota guztiei aurre egiteko gai izan daitezten.
- Filosofiak modu kritikoan, eta askatasunez pentsatzera bultzatzen gaitu.
- Enpirismoaren** ustez, filosofiak hartu behar du ezagutzaren oinarritzat.
- filosofikoaren bereizgarria da giza esperientzia aztertzea.
- Filosofia erabiliz sortzen den jakintza da, eta hori berezkoa dugu guztiok.
- Filosofia jakintza da, errealitatearen eta esperientziaren eremuak ordenatzen saiatzen delako.

LOS MEJORES CONTENIDOS DE BACHILLERATO PARA FORMARSE



Acceda a nuestra web y podrá ver nuestra oferta de novedades para **Bachillerato**, así como el aprendizaje adaptativo que proporciona **SmartBook** ya que no hay dos estudiantes iguales.

www.secundariamhe.es/bachillerato



McGraw-Hill Education

una editorial global a tu servicio



Para más información: www.mcgraw-hill.es / Teléfono: 902 289 888

E-mail: educador@mheducation.com

www.mcgraw-hill.es / www.mhe.es

Telf. contacto: 902 656 439



<http://mgllibros.distriforma.es/>

**McGraw-Hill te facilita disponer de tus eBooks y libros
¡No esperes más para tenerlos!
Un sistema rápido y cómodo al recibirlo en tu domicilio
Contacta con MGHLibros**



www.mcgraw-hill.es/ / www.mhe.es



Distriforma y MGHLibros: Distribuidor de ebook y venta tradicional

McGraw-Hill y Distriforma colaboran gestionando la librería virtual

En esta página web puedes disponer de nuestro fondo actualmente activo

